

EUSKARA
THE BASQUE LANGUAGE


01

Iván Igartua - Xabier Zabaltza

BASQUE.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA



EUSKARA
THE BASQUE LANGUAGE

01

Iván Igartua - Xabier Zabaltza

BASQUE.

1
Euskara
The Basque Language

2
Literatura
Literature

3
Musika klasikoa
Classical Music

4
Euskal kantagintza: pop, rock, folk
Basque Songwriting: pop, rock, folk

5
Artea
Art

6
Zinema
Cinema

7
Arkitektura eta diseinua
Architecture and Design

8
Euskal dantza
Basque Dance

9
Bertsolaritza
Bertsolaritza

10
Tradizioak
Traditions

11
Sukaldaritza
Cuisine

12
Antzerkia
Theatre

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralde komunak eta denbora-mugarri berberak zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugar jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoia piztea du helburu.

This collection created by the Etxepare Basque Institute brings together twelve cultural disciplines, all of them intertwined as they share language, land and history. Hand in hand with our culture, we invite you to witness the fusion of tradition and innovation, the melding of local and foreign. In short, we invite you to learn where we come from, where we are now and where we're heading. This set of books is a launchpad intended to spark your curiosity.

EUSKARA
THE BASQUE LANGUAGE

Iván Igartua – Xabier Zabaltza

08	Aitzinsolasa	Introduction
14	Hizkuntzaren egitura	Structure of the Language
30	Hizkuntzaren bilakaera	Evolution of the Language
36	Euskalkien aniztasuna	Dialectal Diversity
40	Hizkuntzaren jatorria eta ideiak haren ahaideez	Origins of Euskara and Theories about its Relation to Other Languages
48	Euskararen muga historikoak	The Historical Limits of Euskara
56	Euskararen iraupenaren zergatikoak	Reasons for the Survival of Euskara
60	Foruak eta euskara (XVI-XIX. mendeak): foru erakundeak eta apologistak	The 'Fueros/Coutumes' and Euskara (Sixteenth to Nineteenth Centuries): 'Foral' Institutions and Apologists
68	Euskal Pizkundea	'Euskal Pizkundea'
72	XX. eta XXI. mendeak	The Twentieth and Twenty-First Centuries
80	Eranskina: euskarazko liburugintza (1545-2018)	Annex: Book production in Basque (1545-2018)
82	Bibliografia	Bibliography



Nola lortu du Mendebaleko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

How has the only indigenous language of Western Europe that is not of Indo-European origin achieved its own place in the 21st century? What is Basque culture and what sets it apart from others? What international presence does it deserve?

Through the books that make up this collection, the Etxepare Basque Institute would like to offer a series of responses to reach out to other cultures and identities. The better we know each other, the more we appreciate each other. Ongi etorri.

Aitzinsolasa



Euskara Pirinioen mendebaleko bazterrean hitz egiten da, Espainia eta Frantziaren arteko mugaz bi aldeetan. Espainian, Euskadiko Autonomia Erkidegoan (hots, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko probintzietan) eta Nafarroako Foru Komunitatean (probintzia ere baden horretan) mintzatzen da, eskualdeen arabera hizkuntzaren zabalpenean diferentzia handiak daudela. Frantzian, bere aldetik, Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako antzinako probintziak biltzen dituen Euskal Hirigune Elkargoan eta Zuberoaren ondoko Biarnoko haran batzuetan hitz egiten da. Zazpi probintzia edo herrialde horiei *Euskal Herria* deritze euskaraz.

Azken datuen arabera, ia 900.000 pertsona gai dira Euskal Herri osoan euskaraz mintzatzeko, ez maila berean, baina. Euskadin, adibidez, non gaztelaniarekin batera ofiziala baita, euskaraz dakitela diotenak gutxi gorabehera 2.188.017 bizilagunen ia % 34 dira (hots, 740.000 pertsona),

1. Euskal Herria European.

Introduction

1. Basqueland in Europe.

The Basque language (*Euskara* or *Euskera* in Basque) is spoken on both sides of the far Western Pyrenees, thus in territories belonging to both Spain and France. In Spain, the language exists in the Autonomous Community of the Basque Country or *Euskadi*—made up of the provinces of Alava (*Araba* in Basque), Guipuzcoa (*Gipuzkoa*) and Biscay (*Bizkaia*)—and the Foral Community (and province) of Navarre (*Nafarroa*), with significant differences in its strength according to the area. In France, meanwhile, it is spoken in the Agglomeration Community of the Basque Country, which incorporates the old provinces of Labourd (*Lapurdi*), Lower Navarre (*Baxenabarre*) and Soule (*Zuberoa*), as well as in some valleys bordering Soule in the neighbouring province of Béarn. These seven provinces are known collectively as *Euskal Herria* in Basque and this is the territory referred to in this book when we speak about *Basqueland*.

According to the latest estimates, almost 900,000 people know Basque in Basqueland, although to differing degrees. In Euskadi, for example, where it is official together with Spanish, those who claim to speak it make up about 34 percent of the population (740,000 people out of the 2,188,017 current inhabitants), but those who use it regularly only represent 20.5 percent of the population (in other words, around 450,000 people). In French Basqueland, where Euskara has no kind of administrative recognition at all, Basque-speakers constitute a little more than a fifth of its 309,673 inhabitants (some 65,000 people). And in Navarre, where it is only official in the northern part of the territory, it is spoken by almost 13 percent of its 653,846 inhabitants (some 85,000 people). For their part, 8.1 percent of the population express themselves regularly in Euskara in French Basqueland (some 25,000 people) and 6.6 percent in Navarre (some 45,000 people). Currently there are practically no monolingual Basque-speakers, since Basques who do not know either Castilian (Spanish) or French make up less than 1 percent of the population.

Genetically, Euskara is a language isolate: in other words, it does not belong to any known language family. This is not a unique or especially striking case: There are slightly more than a hundred language isolates in the world, amongst which one might mention Ainu in northern Japan, Burushaski in Pakistan, Kusunda in Nepal, Zuni in New Mexico (USA), Nihali or Nahali in India, Sandawe in Tanzania, Kutenai or Kootenai in Idaho and Montana (USA), and Korean. As is usually the case with languages that cannot be classified in a specific language group, there have been some very colourful hypotheses about the origins of Euskara throughout history.

The first extensive texts in Euskara date from the sixteenth century. Prior to this, there is documentary evidence comprising brief notes (already in the tenth-eleventh centuries), fragments of epic songs, commentaries, random expressions and vocabulary appearing in texts in other languages. In 1545 Bernart Dechepare/Etxepare published his *Linguae Vasconum Primitiae*, the first book in the Basque language, while a few years later, in 1571, Joannes Leizarraga/Joanes Leizarraga brought out his translation of the


baina erabili ohi dutenak % 20,5 besterik ez (450.000 pertsona). Ipar Euskal Herrian euskarak ez du inolako onarpen administratiborik eta euskaldunak 309.673 bizilagunen bosten bat baino gehixeago dira (65.000 pertsona inguru). Nafarroan bakarrik iparraldean da ofiziala eta 653.846 bizilagunen ia % 13k hitz egiten dute (85.000 bat pertsonak). Euskara erabili ohi dutenak populazioaren % 8,1 dira Ipar Euskal Herrian (25.000 bat pertsona) eta % 6,6 Nafarroan (45.000 bat). Gaur egun, ia-ia ez dago euskaldun elebakarrik, gaztelaniaz edo frantsesez ez dakiten euskaldunak euskal herritarren % 1 baino gutxiago dira eta.

Euskara genetikoki isolaturiko hizkuntza bat da, alegia, ez da hizkuntza familia ezagun bateko kidea. Haren kasua ez da bakarra, ez eta, zer esanik ez, bereziki deigarria ere. Munduan ehun bat hizkuntza isolatu baino gehiago daude. Haien artean honako hauek aipatzekoak dira: ainua, Japoniaren iparraldean; burushaskia, Pakistanen; kusunda, Nepalen; zunia, Mexiko Berrian; nihali edo nahalia, Indian; sandawea, Tanzanian; kutenaia, Kanadan eta Estatu Batuetako Idaho eta Montana estatuetan, eta koreera. Sailkatzerik ez daukaten hizkuntzekin gertatu ohi den bezala, euskararen jatorriaz ere hipotesirik bitxiak garatu izan dira historian zehar.

Euskaraz idatziriko lehen testu luzeak XVI. mendekoak dira. Lehenago, glosa laburrak agertu dira (X-XI. mendeetakoak), kantu batzuetako pasarteak, iruzkinak, adierazpen solteak eta beste hizkuntza batzuetan idatziriko testuetan sarturiko hiztegiak. 1545ean, Bernart Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zuen, euskarazko lehen liburua. Urte batzuk geroago, 1571n, Joanes Leizarragak Testamentu Berriari egin zion euskarazko itzulpena kaleratu zuen. XVI. mendeko beste testu bat (1567-1602koa) berriki aurkitu da: Joan Perez Lazarragakoren narrazio eta olerkiak biltzen dituena, hain zuzen ere. Garai hartaz geroztik, euskarak, euskalki batean edo bestean, tradizio literario etengabea landu du. Azken aldian, hizkuntza literario edo estandarra (*euskara batua*) sortzeko prozesuagatik beragatik abiadura bizia hartu du. Euskaltzaindiak 1968an ezarri zituen euskara batuaren oinarriak. Hizkuntza estandarizatua administrazioan, hezkuntza sisteman, hedabideetan eta, oro har, literaturan erabiltzen da gaur egun. Hizkuntzaren batasuna funtsezkoa da edozein tradizioan kultura garatzeko eta giltzarri bat izan da euskara berreskuratzeko prozesuan. Datu bat aski izan daiteke hori frogatzeko: 1968an 93 liburu argitaratu ziren euskaraz eta 2018an, 2.138.

2. Bernart Etxepareren liburuaren azala (1545).

2. Cover of Bernart Dechepare's book (1545).



New Testament in Euskara. Recently, another sixteenth-century text (dating from 1567-1602) has been discovered which contains tales and verses by Juan Pérez de Lazarraga/Joan Perez Lazarragako. Since this time, there has been an uninterrupted literary tradition in the Basque language (in its different dialectal variants). In addition, the language has been greatly helped by the standardisation of a literary language (*Euskara Batua* or Unified Basque), the bases of which were agreed on by Euskaltzaindia, the Academy of the Basque Language, in 1968. This standardised language is used today in the public administration, educational system, media and literature in general. This standardisation, a necessary development for any language to assist its cultural development, has been crucial in the process of recovering Euskara. One only need cite the example that, in contrast to the 93 books published in the Basque language in 1968, in 2018 this figure was 2,138.

Hizkuntzaren egitura

Orokorrean, euskara hizkuntza nagusiki aglutinatzaile edo eranskaria da morfologiaren ikuspegitik eta tipologia ergatibokoa edo aktibokoa (deskribatzailearen ikuspegi teorikoaren arabera). Hitzen oinarriko ordenak subjektua objektuaren aurretik jartzen du eta objektua aditzaren aurretik (SOV ordena). Euskararen egitura fonologikoa ez da sobera nahasia. Azken kontu honetatik hasiko gara.

1. EZAUGARRI FONOLOGIKOAK

Euskarak bost bokal ditu: /a/, /e/, /i/, /o/, /u/ (horiei zubereraren, ekialdeko euskalkietako baten, /ü/ bokala gehitu behar zaie). Munduko hizkuntzen artean hedatuen dagoen tipo bokalikoa da. Beraz, euskara batez bestekoaren barruan dago. Diptongoekin ez da berdin gertatzen: euskarak bost dauzka (goitik beherakoak deritzenak), /ai/, /ei/, /oi/, /au/ eta /eu/. Horrek nolabaiteko konplexutasuna ematen dio bokalismoari, eskuarki gaztelaniarenaren oso antzekoa denari (ekialdean /ui/ diptongoa ere bada, baina haren erabilera mugatua da oso).

Kontsonanteei dagokienez, euskarak, barietate estandarrean, 25 unitate dauzka. Sistemaren oinarriak hauek dira: alde batetik, ahostun/ahoskabe oposizioa (kontsonante ahoskabeak alde batean eta ahostunak bestean, baina bakarrik herskariaren artean) eta, bestetik, artikulazio moduen zatiketa hirukuna: badaude kontsonante herskariak (/p/, /t/, /k/, /b/, /d/, /g/), frikariak (/s/, /z/, /x/, /j/) eta afrikatuak (/tz/, /ts/, /tx/). Ozenek osatzen dute kontsonantismoa (sudurkariak eta urkariak, dardarkari bakunen eta anizkunen artean oposizioa dagoela) eta, ekialdeko eskualde batzuetan, aspirazioak (/h/), frikari glotala berau. Oro har, sistema kontsonantikoak ez dauka ezaugarri bereziki deigarririk, salbu eta, agian, fonema frikari eta afrikatuen kopuru handi samarrean eta, bereziki, horien azpimultzoan nabarmentzekoa den artikulazio bizkarkariaren (/z/, /tz/) eta apikariaren (/s/, /ts/) arteko kontrastean.

Euskararen azentua intentsiboa izan ohi da. Ezin da errazki azaldu zertan datzan, zubereraz izan ezik, euskalki horretan azentuazioa finkoa baita, hitzako azken aurreko silaban. Beste euskalkietan, arau hauek izan ohi dute indarra: a) hitzaren erroa monosilabikoa denean, hitzak berak silaba gehiago izanik ere, azentua lehen silaban doa: *lúrra* < *lurr-a*, *lúrretan* < *lurr-etan*; b) erroa bisilabikoa bada eta bokalez bukatzen bada, kasu horretan ere lehen silaban doa azentua: *méndi*, *áte*; c) beste kasuetan, silaba anitzetako hitzetan, azentua bigarren silaban doa, ezkerretik eskuinera kontatuta (*gizón*, *gizóna*) eta bigarren mailako azentu bat gehitu dezakete hitzaren bukaeran, hitzak lau silaba edo gehiago dituenean (*gizónarentzàt*). Mendebaleko zenbait euskalkitan (hala Bizkaian nola Gipuzkoan), melodia edo tonu sistemak erabiltzen

Structure of the Language

The Basque language is a predominantly agglutinative language from a morphological viewpoint. It is an ergative or active language (according to different theorists) with a basic word order in which Subject precedes Object and Verb (SOV) and a not excessively difficult phonology. Let us begin with this latter point.

1. PHONOLOGICAL FEATURES

There are five vowels in Euskara (with an additional /ü/ in the Souletin dialect, one of its eastern varieties): /a/, /e/, /i/, /o/, /u/. This is the most typical vowel system in the world, making Euskara an ordinary language in this respect. However, it is a different case as regards diphthongs: There are five so-called falling diphthongs in Euskara—/ai/, /ei/, /oi/, /au/ and /eu/—which lends the language quite a complex vocalism similar in general to that of Castilian (in some eastern varieties there also exists the rare diphthong /ui/).

There are twenty-five consonants in standard Euskara. The consonant system is based on a voice distinction (voiceless or voiced consonants, although only among plosives) and a threefold way of articulation: plosive (/p/, /t/, /k/, /b/, /d/, /g/), fricative (/s/, /z/, /x/, /j/) and affricate (/tz/, /ts/, /tx/) consonants. The consonant system is completed by the so-called sonorants (whether nasal or liquid, with a distinction made between the alveolar flap or tap and alveolar trill consonants) and, in some eastern areas, the aspiration /h/, a glottal fricative. Together, this consonant system does not have any especially distinctive features except perhaps the high number of fricative and affricate phonemes and, especially, the contrast between dorsal (/z/, /tz/) and apical (/s/, /ts/) articulation within that subset of phonemes.

The generally intensive accent of Euskara makes it difficult to describe in simple terms, with the exception of the Souletin dialect, where the accent is on the penultimate syllable. In the remaining dialects there are usually three rules: a) when word stems are monosyllabic, even though the word itself might have more syllables, the accent is on the first syllable: *lúrra* “the land” < *lurr-a*, *lúrretan* “in the lands” < *lurr-etan*; b) when word stems are disyllabic and end in a vowel, the accent is also on the first syllable: *méndi* “mountain”, *áte* “door”; and c) in all other cases, in polysyllabic words the accent is on the second syllable from left to right (*gizón* “man”, *gizóna* “the man”) and may add a second accent at the end of the word which has four or more syllables (*gizónarentzàt* “for the man”). In some western varieties (both in Biscay and Guipuzcoa) melodic or tonal systems occur, with a basic contrast between high tone (H) and low tone (L). In the speech of Goizueta (Northwest Upper

dira, tonu altuaren (H) eta baxuaren (L) arteko oinarrizko bereizketa egiten dutenak. Goizuetako hizkeran (ipar-mendebaleko nafarrera garaia), bestalde, azentu kontrastiboa tonu kontrastiboarekin konbinatzen da, ikerlan batzuen arabera.

2. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Egitura morfologikoaren aldetik, euskara hizkuntza nagusiki aglutinatzaileen barruan dago. Hizkuntza talde horretan, morfemen arteko mugak argi eta garbi azaltzen dira eta segmentu morfologikoetan esanahi bana adierazten da. Ezaugarri hori, morfemen arteko bereizketa gardena, euskarari aplikatu dakioke eskuarki. Hala ere, zenbait alor gramatikaletan, osagai morfologikoen arteko zatiketa eta esanahia duten unitateekiko lotura ez dira hain begi bistakoak.

2.1. IZEN MORFOLOGIA

Euskara genero gramatikalik gabeko hizkuntza da. Haren ezaugarrietako bat da izenen flexio aberatsa: substantiboak, izenordainak eta adjektiboak kasuetan deklinatzen dira. Kasu horiek, deskripzioen arabera, 14 edo 15 dira (gehiago ere bai, batzuetan). Egia esan, zortzi flexio-forma daude marka (hizki edo klitiko) bakuna dutenak. Horien artean hauexek: absolutiboa (*etxea*, singularrean), ergatiboa (*etxeak*), datiboa (*etxeari*), genitiboa (*etxearen*), instrumentala (*etxeaz*), lokatibo edo inesiboa (*etxean*), ablatiboa (*etxetik*) eta adlatiboa (*etxera*). Absolutiboaren ukoak partitiboaren erabilera dakar berekin (*etxerik ez du*). Horren funtzionamendua paradigma numeral mugagabera mugatua dago eta, batzuetan, ez da sistematan egoteko eskubide osoa duen kasutzat hartzen (hizkuntzalari zenbaitek 'sasi-kasu' deitzen diote). Antzeko zerbait gertatzen da lokatibo adnominalarekin (*etxeko*) eta translatoarekin (*etxetzat*): haien integrazio maila izen paradigmaren nahiko badaezpada da.

Marka bakuna duten kasuei konposatuak gehitzen zaizkie. Horiek sortzeko, genitiboaren edo adlatiboaren forma ondoren doan beste elementu batekin konbinatzen da. Kasu konposatu horiek hauexek dira: komitatiboa (*etxearekin*), direkzionala (*etxerantz*), teliko edo terminatiboa (*etxeraino*), benefaktiboa (*etxearentzat*), kausala (*etxearengatik*) eta destinatiboa (*etxerako*). Kasu horietan guztietan, bereizten ahal dira, alde batetik, oinarrizko marka (genitibo edo adlatiboa) eta, bestetik, berariazko markatzailea. Adibidez, *etxe-a-ren-tzat* (artikuluari dagokion -a- bat barne) edo *etxe-ra-ino*. Ikuspegi historikotik, zenbait formaren kasuan, gaur egun duten itxura bi marka batzearen ondorio da, aurreko adibideetan bezala, edo flexio-paradigmaz kanpoko osagaiei esker gorpuztu da, kausalean edo, marka bakuna dutenen artean, lokatibo adnominallean ere gertatu bezala.

Deklinabidearen kasu lokaletan (lokatiboan, ablatiboan, adlatiboan eta azken honen oinarrian eratzen diren kasu konposatuetan) erreferentzia biziduna duten izenek atzizki osagarri bat erakusten dute (-ga(n)-), genitiboarekin konbinatuta ager daitekeena: ablatiboaren kasuan honako forma hauek konpara daitezke, *etxe-tik* eta *gizon-a-ren-gan-dik*, edo lokatiboaren kasuan beste hauek, *etxe-a-n* eta *gizon-a-ren-gan*.

Navarrese), there is a combination, according to some studies, of a contrastive accent and a contrastive tone.

2. MORPHOLOGICAL FEATURES

As regards its morphological structure, Euskara belongs to the class of predominantly agglutinative languages, those that clearly indicate the boundaries among morphemes, and which convey, moreover, one single meaning in each morphological segment. This feature—the transparent separation of morphemes—may be applied generally to Euskara. However, in certain areas of grammar the division between morphemic components and its relation to the grammatical meaning is not so clear.

2.1. NOMINAL MORPHOLOGY

Euskara has no grammatical gender and is characterised by a rich nominal inflection (declension): nouns, pronouns and adjectives are declined by case. There are fourteen or fifteen (or even more) case forms, although this depends on different descriptions. In reality, one can identify a nucleus of eight inflectional forms with a simple marker (affix or clitic), amongst which are the absolutive (in singular, *etxea* “the house”), the ergative (*etxeak*), the dative (*etxeari*), the genitive (*etxearen*), the instrumental (*etxeaz*), the locative or inessive (*etxean*), the ablative (*etxetik*), and the allative (*etxera*). Negation in the absolutive incorporates the use of the partitive (*etxerik ez du* “he/she has not got a house”), whose functioning is limited to the indeterminate numeral paradigm and which, generally, is not considered a full part of the system (some linguists speak in terms of a “pseudocase”). Something similar happens with the adnominal locative (*etxeko*) and the translative (*etxetzat*), which also only barely fit the inflection paradigm.

Besides this nucleus of cases with a simple marker, there are compound forms, based on the combination of the genitive or allative form with another postpositional suffix: those compound forms are the comitative (*etxearekin*), the directional (*etxerantz*), the telic or terminative (*etxeraino*), the benefactive (*etxearentzat*), the causal (*etxearengatik*) and the destinative (*etxerako*). All of them can be divided up by, on the one hand, the base formative (genitive or allative), and, on the other, the specific marker, such as *etxe-a-ren-tzat* “for the house” (with an -a- which indicates the article) or *etxe-ra-ino* “up to the house”. From a historical point of view, more than one of these forms is clearly secondary, due to the joining of two formatives, as in the previous cases, or the incorporation of external elements into the inflection paradigm, as in the causal or even (in simple forms) the adnominal locative.

In local cases of declension (locative, ablative, allative and the compounds deriving from the latter), animate nouns have an additional element (-ga(n)-), which can appear with the genitive form: in this regard, one can compare the ablative forms *etxe-tik* “from the house” and *gizon-a-ren-gan-dik* “from the place of the man” or “on behalf of the man” or those of the locative *etxe-a-n* “in the house” and *gizon-a-ren-gan* “in the man”.

Euskarazko deklinabide sistemak hiru forma edo paradigma talde dauzka: bat singularerako, beste bat pluralerako eta beste bat flexio mugagaberako, hots, artikulurik ez daukan eta, numero gramatikolari dagokionez, indiferentea den horretarako (ikus bedi lagin hau *liburu* substantiborako):

Kasua/ Numeroa	Singularra	Plurala	Mugagabea
Absolutiboa	<i>liburu-a-∅</i>	<i>liburu-ak</i>	<i>liburu-∅</i>
Ergatiboa	<i>liburu-a-k</i>	<i>liburu-e-k</i>	<i>liburu-k</i>
Datiboa	<i>liburu-a-ri</i>	<i>liburu-e-i</i>	<i>liburu-ri</i>
Genitiboa	<i>liburu-a-ren</i>	<i>liburu-e-n</i>	<i>liburu-ren</i>
Lokatiboa	<i>liburu-a-n</i>	<i>liburu-e-ta-n</i>	<i>liburu-tan</i>

Euskarazko deklinabidearen funtzionamenduaren funtsezko ezaugarri bat haren izaera sintagmatikoa da, alegia, funtzioaren markatzailea (kasua) sintagma edo talde nominalaren azken osagaiari gehitzen zaio, ez osatzen duten guztiei: *liburu-an irakurri zuen*, *liburu har-tan irakurri zuen*, *liburu erosi berri-an irakurri zuen*. Berezitasun hori numeroaren adierazpenera ere zabaltzen da. Hurrengo adibideetan bezala, sintagmako azken kidea bakarrik agertzen da markaturik plural gisa: *liburu berri-ak*, *liburu berri hori-ek*. Ezaugarri horri talde-flexio deitu ohi zaio: haren baitan, funtzio markak klitikotzat jotzen dira (ez horrenbeste atzizkitzat). Euskarazko deklinabidearen erabileraren beste bereizgarri bat, hizkuntza aglutinatzaileetan gertatu ohi dena, forma nominaletan desinentzian markak metatzeko aukera da (elipsiaren ondorio gisa): *lagun-a-ren-e-tik*, genitiboko *-ren-* marka eta ablatiboko *-tik* marka metaturik.


3. Joan Perez Lazarragakoren eskuizkribuaren zati bat (ca. 1567-1602).

2.2. ADITZ MORFOLOGIA

Euskarazko aditzaren morfologia konplexuagoa da izenarena baino. Kategoria orokorrak ez ezik (tenpusa, aspektua, modua, numeroa eta pertsona), euskaraz forma sistema jori bat dago: aditz batzuetan (dozena bat, aditz laguntzaileak barne) forma analitiko edo perifrastikoak (*eramaten dut*), alde batetik, eta, bestetik, forma sintetikoak (*daramat*, *eraman* aditz berekoa) bereizten dira; horrez gain, konjugazio orokor bat dago, pluripertsonala deritzona, non aditzaren ekintzan diharduen edo parte hartzen duen bakoitzarentzat markak ageri baitira; eta gainera konjugazio alokutibo bat ere bada, formak modu batean edo bestean osatzerakoan solaskidearen sexu edo generoa kontuan hartzen duena.

Forma sintetikoen bidez, aspektuaren esanahi progresiboa adierazten da, forma perifrastikoen esanahi ohikoaren kontrakoa: *dator* alde batetik eta *etortzen da* bestetik, *darama* alde batetik, *eramaten du* bestetik (aditz estatiboetan, ordea, erlazio hori ez da gertatzen: *daki*, *dakusa*). Adibide hauetan ikus daitekeenez, forma perifrastikoen aditz laguntzailea (*da/du*) aldatzen ahal da, eta aditzaren izaera semantikoaren arabera benetan aldatzen: aditza iragangaitzen taldekoa bada (edo, hobe, adituek «inakusatiboak» deitzen dieten horietakoa) laguntzaileak *izan*-eko

3. Fragment of the manuscript (c. 1567-1602) by Juan Pérez de Lazarraga.



The declension system in Euskara has three groups of forms or paradigms: one for the singular, another for the plural, and a third for the indeterminate inflection, that which does not include the article and is indistinct as regards grammatical number (see the following example for the noun *liburu* “book”).



4. Pedro de Axular (1556-1644), master of Basque letters.

formak hartzen ditu. Aitzitik, aditza iragankorra bada edo iragangaitza baina aktiboa bada, laguntzailea **edun* paradigmatik hartzen da (forma hori ez dago dokumentatua, horregatik izartxo batekin markatzen da):

	izan		<i>*edun</i>	
	Orainaldia	Lehenaldia	Orainaldia	Lehenaldia
1. P. sg	naiz	nintzen	dut	nuen
2. P. sg	zara	zinen	duzu	zenuen
3. P. sg	da	zen	du	zuen
1. P. pl.	gara	ginen	dugu	genuen
2. P. pl.	zarete	zineten	duzue	zenuten
3. P. pl.	dira	ziren	dute	zuten

**edun*-etik datorren laguntzailearekin osaturiko aditz-multzoetako subjektuek ergatiboaren marka daukate (-k singularrean). Esan den bezala, ezaugarri hori egitura iragankorrei (*Anek liburua irakurri du*) ez ezik, esanahi aktiboko egitura iragangaitzek osaturiko azpitalde txiki bati ere badagokio euskara batuan (*Anek ondo dantzatzen du, emanaldiak luze irau du*). Horregatik, egile batek baino gehiagok pentsatzen du euskara batua (eta harekin batera euskalki asko) ez dela zehazki sistema ergatibo bat, kontzeptua ezaugarri morfologiko eta sintaktikoetatik abiatu definitu ohi den moduan, egitura aktiboko hizkuntza bat baizik (*split-S language*).

4. Pedro Axular (1556-1644), euskal letren maisua.

Case/Number	Singular	Plural	Indeterminate
Absolutive	<i>liburu-a-Ø</i>	<i>liburu-ak</i>	<i>liburu-Ø</i>
Ergative	<i>liburu-a-k</i>	<i>liburu-e-k</i>	<i>liburu-k</i>
Dative	<i>liburu-a-ri</i>	<i>liburu-e-i</i>	<i>liburu-ri</i>
Genitive	<i>liburu-a-ren</i>	<i>liburu-e-n</i>	<i>liburu-ren</i>
Locative	<i>liburu-a-n</i>	<i>liburu-e-ta-n</i>	<i>liburu-tan</i>

One key feature of nominal inflection in Euskara is its phrasal nature. In other words, the function marker for case is added only to the last component of the syntagm or noun phrase rather than to all of them: *liburu-an irakurri zuen* "he/she read it in the book", *liburu har-tan irakurri zuen* "he/she read it in that book", *liburu erosi berri-an irakurri zuen* "he/she read it in the recently purchased book". This trait is also a feature of expressing plural numbers, where only the last part of the noun phrase takes on a plural marker as in these cases: *liburu berri-ak* "the new books", *liburu berri horiek* "those new books". This is termed group inflection, in which function markers are clitics (not so much affixes). Another characteristic feature of the use of Basque declension, and one typical in agglutinative languages, is the accumulation of case markers in nominal forms (as a result of ellipsis): *lagun-a-ren-e-tik* "from that of the friend", with the formative *-ren-* from the genitive and *-tik* from the ablative.

2.2. VERBAL MORPHOLOGY

Verbal morphology is more complex than nominal morphology in Euskara. In addition to the widespread categories of tense, aspect, mood, number and person, the Basque language also includes a meticulous formal gear which includes, though only in a dozen verbs (amongst them, auxiliary verbs), a morphological contrast between, on the one hand, analytical or periphrastic forms (*eramaten dut* "I take") and, on the other, synthetic forms (*daramat* "I am taking", from the same verb *eraman* "to take"); a general pluripersonal conjunction characterised by markers for each actor or participant in verbal activity; and an allocutive conjugation that takes the sex or gender of the interlocutor into account when constructing its forms in one way or another.

Progressive aspectual meaning is expressed through synthetic forms, in contrast to the habitual meaning of periphrastic forms: *dator* "he/she is coming" as opposed to *etortzen da* "he/she comes", *darama* "he/she is bringing (something)" as opposed to *eramaten du* "he/she brings (something)" (although this is not the case in stative verbs: *daki* "he/she knows (something)", *dakusa* "he/she sees (something)"). As one can see from these examples, the auxiliary verb in periphrastic forms (*da/du*) may vary, and it does so in terms of the semantic nature of the verb: if the verb belongs to the intransitive group (or, rather, to what specialists term unaccusative verbs), the auxiliary takes the *izan* "be" form, while if the verb is transitive (or intransitive yet active), the corresponding auxiliary comes from the **edun* "have" paradigm (a non-attested form, hence the asterisk).

Konjugazio edo aditz komunztadura pluripertsonalak adizki bakar batean partaide batzuen erreferentzia biltzen ahal du: subjektuarena, osagarri zuzenarena (gehienetan, markatu gabe) eta zeharkako osagarriarena. *Darama* adizkia *daramakio* adizkiarekin alderatuz gero, berehala atzematen da ekintzako hirugarren partaideari, zeharkako osagaiarena egiten duenari, dagokion markatzaile morfologikoa. Ikus ditzagun beste adibide batzuk:

ekarri d-i-da-zu: laguntzaileko *d-* orainaldiaren adierazlea da, *-i-* artizki bat da, *-da-* singularreko lehen pertsonaren adierazlea eta *-zu* singularreko bigarren pertsonarena;

ekarri d-i-o-zu: laguntzaileko *d-* orainaldiaren adierazlea da, *-i-* artizki bat da, *-o-* singularreko hirugarren pertsonaren adierazlea eta *-zu* singularreko bigarren pertsonarena;

ekarri d-i-z-ki-gu-te: laguntzaileko *d-* orainaldiaren adierazlea da, *-i-* artizki bat da, *-z-* objektuaren pluralaren adierazlea, *-ki-* beste artizki bat (datibozko markarekin lotua, batzuetan ‘aplikatibo’ esaten zaio), *gu-* pluraleko lehen pertsonaren adierazlea eta *-te* pluraleko hirugarren pertsonarena;

ekarri z-i-z-ki-gu-te-n: laguntzaileko *z-* lehenaldiaren adierazlea da, *-i-* artizki bat da, *-z-* objektuaren pluralaren adierazlea, *-ki-* beste artizki bat (datibozko markarekin lotua, aurreko forman bezala), *-gu-* pluraleko lehen pertsonaren adierazlea, *-te-* pluraleko hirugarren pertsonarena eta *-n* lehenaldiaren marka da.

Adizkiak, bereziki konjugazio pluripertsonalaren barruan, oso modu ikusgarrian zailtzen ahal dira, adibide hauek frogatu bezala (egiazko kasuak dira, baina gutxi erabiliak): *ziezazkiguketen*, *z-ieza-z-ki-gu-ke-te-n* morfemetan zatitua, edo *generamazkionan* (emakume bati hitz egiten zaionean), *ge-ne-ram(a)-z-ki-o-na-n* morfemetan zatitua.

Azkenik, konjugazio alokutiboak solaskidearen generoaren arabera bereizten diren adizki-paradigmak biltzen ditu. Adizki horiek orokorreki buruz diferenteak dira, ez bakarrik hizlariak espresuki bere solaskidea aipatzen duenean *ikusi duk* (mask.), *ikusi dun* (fem.), hori beste aditz pertsona bati bailegokioke, baizik eta solaskideak ekintzan parte hartzen ez duenean ere bai (hemen datza, egiatan, inflexio alokutiboa): *liburu hau irakurri diat* (gizon bati hitz egiten zaionean), *liburu hau irakurri dinat* (emakume bati hitz egiten zaionean); adizki markatu gabea, solasaldiaren erreferentziarik egiten ez duena, *liburu hau irakurri dut* esaldia da, kontu horretan izan ezik aurrekoen baliokidea dena. Ez omen dago munduan solaskidearen generoaren arabera bereizketak egiten dituen hizkuntza askorik: orain arte aipatu eta ikertu diren kasuak pumea (Venezuela), nambikwara (Brasil), mandana (Ipar Amerika) eta beya (Ipar-Ekialdeko Afrika, kuxtarra) izeneko hizkuntzei dagozkie.

Euskal aditz-forma alokutiboen erabilera, historian zehar gainbehera izan duena, harreman eta egoera jakin batzuetara mugatua dago: erabiltzen den bariatateetan, inflexio alokutiboa arrunta da anai-arreben artean eta adin bertsuko lagun minen artean, ohikoagoa, dena den, gizonezkoen artean emakumezkoen artean eta harreman mistoetan baino. Bestelako egoeretan forma alokutiboen erabilera urria da, edo ez da gertatzen.

	izan		*edun	
	Present	Past	Present	Past
1 st P. sg	naiz	nintzen	dut	nuen
2 nd P. sg	zara	zinen	duzu	zenuen
3 rd P. sg	da	zen	du	zuen
1 st P. pl.	gara	ginen	dugu	genuen
2 nd P. pl.	zarete	zineten	duzue	zenuten
3 rd P. pl.	dira	ziren	dute	zuten

Subjects of verbal complexes with an auxiliary from **edun* take on an ergative marker (*-k* in singular). As noted, this feature is not exclusive to transitive structures—such as *Anek liburua irakurri du* “Ane has read the book”—but also extends, in the standard variety of the language, to a small subgroup of intransitive structures with an active semantics: *Anek ondo dantzatzen du* “Ane dances well”, *emanaldiak luze iraun du* “the session has lasted a long time”. For this reason, several authors consider Standard Euskara (along with many of its dialects) not strictly an ergative system—in the way this concept is usually defined on the basis of both morphological and syntactic features—but, rather, a language with an active structure (*split-S* language).

Pluripersonal verbal agreement or conjugation can integrate in one single verb form the reference to several participants: subject, direct object (generally not marked) and indirect object. When one compares a form like *darama* “he/she is taking (something)” with *daramakio* “he/she is taking (something) to him/her”, one immediately appreciates the difference that the addition of a third participant in the activity—functioning as an indirect object—brings. Let us consider some more examples:

ekarri d-i-da-zu “you have brought it to me”: in the auxiliary *d-* indicates the present, *-i-* is an interfix, *-da-* indicates “me” and *-zu* “you”.

ekarri d-i-o-zu “you have brought it to him/her”: in the auxiliary *d-* indicates the present, *-i-* is an interfix, *-o-* indicates “to him/her” and *-zu* “you”.

ekarri d-i-z-ki-gu-te “they have brought them to us”: in the auxiliary *d-* indicates the present, *-i-* is an interfix, *-z-* indicates plural object, *-ki-* is another interfix (related to the dative marker, sometimes called ‘applicative’), *-gu-* indicates “us” and *-te* “they”.

ekarri z-i-z-ki-gu-te-n “they brought them to us”: in the auxiliary *z-* indicates the past, *-i-* is an interfix, *-z-* indicates plural object, *-ki-* is another interfix (related to the dative marker, as in the previous form), *-gu-* indicates “us”, *-te* indicates “they”, and *-n* is the preterite marker.

Verb forms, especially in the pluripersonal form, can be extremely complex, as demonstrated by the following (authentic yet rarely used) examples: *ziezazkiguketen* “they could have (done it) for us”, divided morphologically into *z-ieza-z-ki-gu-ke-te-n*; and *generamazkionan* “we were taking them to her” (feminine interlocutor), divided morphologically into *ge-ne-ram(a)-z-ki-o-na-n*.

Finally, the so-called allocutive conjugation contains different form paradigms according to the sex/gender of the interlocutor. These forms differ from more general forms not just when the speaker specifically mentions the interlocutor (*ikusi duk* “you have seen” (masculine), *ikusi dun* “you have seen” (feminine)—in what would be

3. EZAUGARRI SINTAKTIKOAK

Euskaraz, hitzen oinarritzko ordena SOV (Subjektua-Objektua-Aditza) izan ohi da, tipologia aktibo eta ergatiboko hizkuntzetan oso zabaldua dagoena. Hala ere, euskarak malgutasun sintaktiko nabarmena du. Esaldien mailako ordenarik ohikoena (*Maitek_(S) auto berria_(O) erosi du_(V)*) izenen eta postposizioen arteko harremanarekin bat dator (euskaraz ez dago preposizioirik): *aulkiaren atzean, iritzi horren aurka*. Gaztelaniatik harturiko preposizioak, euskarak onartu eta gero, beste postposizioak bezala portatzen dira: *iritzi horren kontra*. Izen sintagmaren eta haren genitiboaren osagarriaren arteko ordena (*aitaren etxea*) bat dator tipologikoki hitzen oinarritzko ordenarekin. Gauza bera esan daiteke egitura konparatiboez: *hauetan, konparazioaren bigarren osagaia adjektiboaren -hau dagokion graduan- aurretik agertzen da (zu baino gazteagoa)*. Adjektiboak, bestalde, izenen atzetik agertzen dira (*katu beltza*): ezaugarri hau beste egituren hurrenkeraren logikaren bat ez datorrela ematen du. Hala ere, kontuan izan behar da adjektiboaren ordenaren eta hizkuntzen bestelako ezaugarri sintaktikoen arteko elkarrekikotasun argirik ez dela egoten.

Bestaldetik, menpeko esaldi erlatibodunak laguntzen duten izenaren aurretik joan ohi dira (*[erosi berri dudan]_(Rel) liburua*). Hala ere, hori ez da modu bakarra klausula erlatibodunak sortzeko: maila batzuetan *zeina* izenordaina erabiltzen da, erromantzearen egituraren antzera, hots, erlatiboa substantiboaren ondoren. Gaurdaino ia-ia iraun ez duten eraikuntza zaharretan, erlatiboa erreferentearen atzetik ere bazihoan, hala nola: *monument ageri ez tiradenak_(Rel) bezala zarete* (Leizarraga, 1571, Lukas XI, 44). Joskera hori oraingoarekin alderatzen ahal da (*ageri ez diren_(Rel) monumentuak bezala(koak) zarete*). Barne erlatiboko gisa azter litezke. Horrenbestez, euskarak izan litezkeen aukera tipologiko ia guztiak dauzka menpeko esaldi erlatiboak osatzeko.

5. Manuel Larramendi (1690-1766).

6. Larramendiren *Hiztegi hirukoitza* (1745).

7. Resurrección María Azkue (1864-1951).



5



6



7

5. Manuel de Larramendi (1690-1766).

6. *The Trilingual Dictionary*, by Larramendi (1745)

7. Resurrección María de Azkue (1864-1951).

more akin to a distinct personal verb—but also in constructions where the interlocutor does not participate in the activity (this is, strictly speaking, the allocutive inflection): *liburu hau irakurri diat* “I have read this book” (male interlocutor), *liburu hau irakurri dinat* “I have read this book” (female interlocutor). The non-marked form, without reference to the interlocutor, is found in the clause (equivalent, except in this aspect, to those above) *liburu hau irakurri dut* “I have read this book”. It would appear that there are not many languages in the world that evince a similar differentiation in accordance with the gender of the interlocutor. To date, those cited and studied are Pumé (Venezuela), Nambikwara (Brazil), Mandan (North America) and Beja (a Cushitic language in Northeast Africa).

The historically declining use of allocative verb forms in Euskara is limited to particular situations and relations: in those variations in which it is used, the allocutive inflection is typical amongst siblings or amongst close friends of a similar age, and is far more typical amongst men than amongst women or in mixed relationships. In other circumstances, its use is rare or practically non-existent.

3. SYNTACTIC FEATURES


Basic word order in Euskara generally follows the SOV (Subject-Object-Verb) schema typical of languages with an active and ergative typology,

4. EZAUGARRI LEXIKOAK

Euskararen lexikoa hizkuntzaz gutxien ezagutzen den kontuetako bat da eta horrek bide eman die balizko iritzi etimologiko guztiei, fundamentuarekin edo gabe. Zoritxarrez, azken hauek izan dira nagusi historian zehar. Badakigu euskara latinezko eta erromantzezko hitzez elikatu dela lotsarik gabe. Mailegu batzuk begi bistakoak dira (*bake* < lat. *pace(m)*, *ohore* < lat. *(h)onore(m)*, *liburu* < lat. *libru(m)*, *herren*, *herrenka* < esp. *renco*, *rengo*), baina beste batzuk ez hainbeste (*aizkora* < lat. *asciola*, *begiratu* < lat. *vigilare*, *biao* < lat. *meridianu(m)*, *aitortu* < aragoiera zaharreko *aytorgar*). Askoz gutxiago izanik ere, litekeena da antzinako hizkuntza zeltetatik harturiko lexikoa ere izatea (*mando*, *gori*, *maite*, agian *izokin*, baina azken hitz horren jatorria latin berantiarreko *esocina* izan daiteke, Asturietako *esguín* ‘izokin gaztea’ kide izan dezakeena) eta akaso germaniar hizkuntzetatik ere bai (*urki*, esaterako). Arabieratik harturiko

8. Akitaniako inskripzioa.
9. Bonaparteren mapa (1863).

8. Aquitanian inscription.
9. Bonaparte's Map (1863).



although it is also true that Euskara enjoys substantial syntactic flexibility. The most typical order in clauses—*Maitek_(S) auto berria_(O) erosi du_(V)* “Maite has bought a new car”—corresponds to the relationship that exists between nouns and postpositions (there are no prepositions in Euskara): *aulkiaren atzean* “behind the chair”, *iritzi horren aurka* “against that opinion”. Even prepositions which Euskara has borrowed from Spanish behave, once embraced, like postpositions: *iritzi horren kontra* “against that opinion”. The relative order of the core of the noun phrase and its genitive complement (*aitaren etxea* “the father’s house”), as well as that which characterises comparative structures, where the second term of the comparison precedes the adjective in the corresponding level (*zu baino gazteagoa* “younger than you”), are in turn consistent with the basic word order. However, adjectives follow nouns in Euskara (*katu beltza* “(the) black cat”), which seems in principle to contradict the rest of the constructions. Yet it is the case that the order of adjectives does not usually correlate clearly with the rest of the syntactic features of languages.

For their part, subordinate relative clauses usually precede the noun they modify: *erosi berri dudan_(Rel) liburua* “the book I have just bought”. However, this is not the only means of constructing a relative clause. In some varieties the pronoun *zeina* (“that” or “which”) is used in a structure very similar to that of Romance, with the relative pronoun placed after the noun as a postposition. In older constructions which barely survive to this day the relative also occurs after the referent, as in the example *monument ageri ez tiradenak_(Rel) bezala zarete* (Leizarraga, 1571, Luke XI, 44) “ye are as graves which appear not” (a structure that might be compared to the current *ageri ez diren_(Rel) monumentuak bezala(koak) zarete*). This could be analysed as an internally-headed relative clause, so Euskara uses almost every possible typological option to make relative subordinate clauses.

hitzak ere -fidagarriagoak eta ugariagoak hauek- badaude (*alkandora*, *azoka*, *gutun*, ar. *kutub* 'liburuak'), baina gehienak erromantzeak iragazirik etorri dira.

Ondare-lexikoari dagokionez, oso gutxi dakigu zehazki. Hala ere, gaur egungo ikerketek (Joseba A. Lakarraren eskutik) adierazten dute, antza, jatorrizko lexikoaren multzoaren muina erro laburretan, monosilabikoetan, oinarritzen zela eta, hortik abiaturik, hizkuntzaren bilakaeraren ondorengo urratsetan, bi silaba edo gehiagoko erroak sortuz joan zirela. 2019an euskararen lehen hiztegi historiko-etimologikoa eman zuten argitara Joseba A. Lakarrak, Julen Manterolak eta Iñaki Seguiolak: hiztegiaren xedea euskal erro eta hitz-familia ugariaren jatorria argitzea da, lan zail eta korapilatsua, inondik ere, euskara bezalako hizkuntza isolatu baten kasuan.

4. LEXICAL FEATURES

The lexicon of Euskara is one of the least known dimensions of the language and, for that very reason, has given rise to all kinds of etymological conjecture of varying degrees of quality (although, unfortunately, mainly poor throughout history). We know for sure that the Basque language has drawn generously from Latin and Romance words. Some of these are clearly recognisable (*bake* "peace" < Lat. *pace(m)*, *ohore* "honour" < Lat. *(h)onore(m)*, *liburu* "book" < Lat. *libru(m)*, *herren* "limp", *herrenka* "limping" < Sp. *renco*, *rengo*), others less so (*aizkora* "axe" < Lat. *asciola*, *begiratu* "to look at" < Lat. *vigilare*, *biao* "nap" < Lat. *meridianum*, *aitortu* "acknowledge" < Old Aragonese *aytorgar*). Some vocabulary, although much less, may have been borrowed from ancient Celtic languages (*mando* "mule", *gori* "red-hot" or "incandescent", *maite* "beloved", perhaps *izokin* "salmon", although the latter may be directly traced back to the Vulgar Latin word *esocina*, probably reflected in the Asturian term *esguín* "young salmon") and perhaps the odd word of Germanic origin (like, maybe, *urki* "birch tree"). There are likewise words—these more reliable and numerous—of Arabic origin (*alkandora* "shirt", *azoka* "market", and *gutun* "letter", from the Ar. *kutub* "books"), which would have arrived via the filter of Romance.

As regards native words very little is known accurately, although the most recent research (by Joseba A. Lakarra) would appear to point to a core of an original lexical patrimony based on short roots or monosyllables. From these, during the later evolution of the language, stems of two or more syllables were created. In 2019, the first historical-etymological dictionary of the Basque language was published (by Joseba A. Lakarra, Julen Manterola and Iñaki Seguiola): its goal is to clarify the origin of numerous lexical roots and families, an always complex and even convoluted task in the case of a genetically isolated language like Euskara.

Hizkuntzaren bilakaera

Evolution of the Language



10

Hizkuntza guztietan salbuespenik gabe gertatu ohi den bezala, euskararen egitura fonologiko eta gramatikala aldatuz joan da historian zehar. Euskarak idatzizko tradizio labur samarra izanagatik ere (tamaina jakin bateko testuak XVI. mendekoak baino ez dira), nabaria da Aro Modernoaren hasieran hitz egiten zen euskararen edo haren aldaeren eta egungo hizkuntzaren artean dagoen aldea. Horretaz jabetzeko, nahikoa litzateke *Refranes y Sentencias*-en (1596) jasotako esaldiren bat gogora ekartzea, esaterako *yquedac ta diqueada* (grafia gaurkotuan *ikedak (e)ta dikeada* ‘darasme y dareté’ (RS 233). Haren gaurko ordain estandarra *emadak eta emango diat* bezalakotan bilatu behar genuke. Jakina, espero izatekoa da hura baino euskara zaharragoaren eta egungo hizkuntzaren arteko ezberdintasunak are nabarmenagoak izatea.

Hala eta guztiz, lehen idatzizko lekukotasunetatik hona igarotako mendeetan euskararen egitura fonologiko eta, hein batean, gramatikalaren aldaketa nahiko mugatua izan da. Grafien historiari erreparatuz gero, bistan da ez bokalen ez kontsonanteen sisteman ez dela ezer irauli (alegia, ez dela fonemen galera nahiz gehitze nabarmenik gertatu). Eredu morfologikoan bilakabide batzuk azpimarragarriak dira, hala nola kasu marken ordezkatzeko zenbait (-*rean* antzinako ablatibo singularraren morfema edo klitikoari, *etxerean* forman bezala, -*tik* marka gailentzen zaio, ik. *etxetik*), edo aoristoko nahiz geroaldiko aditz forma berezien (euskara zaharrean *nesan* ‘esan nuen’, *ethor cedin* ‘etorri zen’, *datorque* ‘etorriko da’,

- 10. 1167. urteko dokumentua, euskarari *Lingua Navarrorum* deitzen diona.
- 11. Euskara-islandierazko pidginarekin lotutako glosarioa (XVII. mendea).

As is the case in all linguistic systems without exception, the phonological and grammatical structure of Euskara has experienced changes throughout its history. In spite of a written tradition which is relatively limited in time (the first texts of any length date to the sixteenth century), there is a clear contrast between the language or its spoken varieties at the dawn of the Modern Age and the current dialects. One only need recall a phrase amongst those collected in *Refranes y sentencias* (Sayings and Maxims, 1596), such as *yquedac ta diqueada* (in modernised spelling *ikedak (e)ta dikeada*) “give me and I will give you” (RS 233), whose current standard equivalent would be something like *emadak eta emango diat*. One would expect that, in previous phases of development, the differences with regard to the Euskara we know today were more pronounced still.

In any event, during the centuries since the first written testimonies, there have been fewer changes in both the phonological and, to some extent, grammatical structure of Euskara. Judging by the history of spelling, there has been no major alteration in the vowel or consonantal system (in other words, there have been no great losses or additions of phonemes). In the morphological terrain there have been some notable evolutions, such as the substitution of case formatives (the archaic singular ablative in -*rean* in forms like *etxerean* “from/out of the house” has been replaced by -*tik*,



11

- 10. A document dating from 1167 which calls Basque the *Lingua Navarrorum*.
- 11. Glossary related to the Basque-Icelandic pidgin (17th century).

estacusque ‘ez du ikusiko’) eta aditz paradigma sintetiko batzuen galera: Lazarragaren eskuizkribuan (ca. 1567-1602) erabiltzen diren *badafinçu* ‘ipintzen baduzu’, *ce nafinçu* ‘ez nazazu ipini’ edo *dafinquet* ‘ipiniko dut’ bezalako formak gaur egun ezinezkoak dira. Galtzapenen ondoan, artikularen gramatikalizazio prozesua (**har* urruneko erakuslean oinarri duena) funtsezko garapen diakronikoa da, ziur aski erromantzearen eredutik abiatu zena. Ez dirudi, bestalde, sintaxiak eraldaketa nabarmenik pairatu zuenik hizpide dugun garaian.

Alabaina, euskararen historia aurreko eboluzio faseen (testuetan lekukotua ez dauden) berreraiketak errotik aldatzen du ikuspegia. Koldo Mitxelena kontsonante *fortes* (tentsoak) eta *lenes* (ahulak) zeuzkan sistema fonologiko bat proposatu zuen aitzineuskararako (alegia, akitanierazko idazkunen aurretiko hizkuntza garairako). Ondoren, sistema hori euskalki historiko guztietan ezaguna den ahoskabe/ahostun egitura bilakatuko zen. Mitxelena berreraiketa klasikoaren arabera honela antolatzen dira antzinako sistema haren unitate fonologikoak:

Lenes	b	d	g	z	s	n	l	r	h
Fortes	-	t	k	tz	ts	N	L	R	

Aitzineuskarak ez zukeen, eskema horri jarraiki, **p* fonema *fortisa* (bigarrenkaria litzatekeena, hortaz, euskara historikoan) ez eta **m* sudurkaria ere (jatorri anitzekoa, tartean asimilazio fonologikoa eta mailegu lexikoa, besteak beste). Ezpainkari sudurkariaren gabezia irregulartasun tipologiko deigarria da. Bereizketa oinarrizkotik kanpo

12. Euskal Herriko leinu protohistorikoen mapa.



12. Map of proto-historical Basque tribes.

see the current *etxetik*) and the loss of specific aorist and future verb forms (Old Basque *nesan* “I said”, *ethor cedin* “he/she/it came”, *datorque* “he/she/it will come”, *estacusque* “he/she/it will not see”) and some synthetic verbal paradigms, as happens with *ipini/ifini* “put, place”. The manuscript by Lazarraga (c. 1567-1602) presents forms like *badafinçu* “(if) you put”, *ce nafinçu* “do not place/leave me” and *dafinquet* “I will put (it)”, which are today impossible. In contrast to these losses, the grammaticalisation process of the article on the basis of the distal deictic **har* “that” is a significant acquisition which was inspired possibly by the Romance model. The syntax, for its part, does not seem to have been subject to major transformations during this time.

Nevertheless, the reconstruction of previous evolutionary phases which were not attested in historical documents changes the panorama substantially. Luis Michelena/Koldo Mitxelena proposed for Proto-Basque (a state of the language prior to the era of Aquitanian inscriptions) a consonantal system based structurally on the opposition of *fortis* (tense) and *lenis* (weak or lax) phonemes, which later evolved into the system of voiced and voiceless consonants that characterises all the historical dialects. Michelena’s classic reconstruction distributes those phonological units in the following way:

Lenes	b	d	g	z	s	n	l	r	h
Fortes	-	t	k	tz	ts	N	L	R	

According to this schema, the Proto-Basque system did not know the labial fortis **p* (secondary, as a result, in historic Euskara) or the nasal **m* (attributed to several origins, amongst them phonological assimilation and lexical borrowing), an absence that represents a striking typological anomaly. The aspiration /h/, which also formed part of Proto-Basque consonants, was outside that opposition and in some cases is the result of the evolution of the *lenis* alveolar nasal /n/.

The arguments behind the reconstruction of primitive consonants of *fortis* and *lenis* phonemes is based on historical data in which one observes the evolution of geminate occlusive consonants in borrowings from Latin, which, even when they are voiced, become voiceless occlusives in Euskara in word-medial position: Lat. *sabbatu* > *zapatu* “Saturday”, Lat. *abbas* > *apaiz* “priest” (even from the Arabic *ad-durrāa* > *athorra* “shirt”). The change would not make phonological sense in a consonant system with an opposition of voice (instead of tense). An alternative, although closer, interpretation is to associate the opposition with a contrast of simple and geminate consonants (as at one point Larry Trask suggested). More recent attempts at internal reconstruction have tried to take the Proto-Basque system of *fortis* and *lenis* consonants back to a previous state which lacks this opposition, with a notably less number, therefore, of phonemes.

As regards its grammatical aspects, the image of Proto-Basque is in general more diffuse. Various hypotheses have been advanced, of differing levels of credibility, about primitive morphology and syntax, sometimes by applying powerful theoretical approaches like that of grammaticalisation. Nominal inflected forms present distinct chronological strata, represented by simple and compound markers. Everything appears to indicate that the original nucleus consisted of a reduced set of forms, in contrast to those that the language has today. It is also evident that verb paradigms

geratzen da aitzineuskararen kontsonante sistemaren parte ere bazen hasperena (/h/), zeina kasu jakin batzuetan /n/ sudurkari hobikari *lenearen* bilakabidearen emaitza baita.


Fonema *fortes* eta *lenes* deritzenen hasierako sistema kontsonantiko bat berreraikitzeke arrazoiak loturik daude historian lekukotutako bilakabide fonologiko jakin batzuekin: latinetik datozen maileguen jatorrizko herskari geminatuak, ahostunak izanda ere, herskari ahoskabe bihurtzen dira euskaraz hitzaren barruko kokaguneetan: lat. *sabbatu* > *zapatu*, lat. *abbas* > *apaiz* (are arabieratik hartutakoetan ere, ik. *ad-durrā'a* > *athorra*). Aldaketa horrek ez luke zentzu fonologikorik ahotsean (eta ez tentsioan) oinarritutako oposizioa duen sistema kontsonantiko baten barruan. Azalpen alternatibo baina hurbila da sistema hori kontsonante bakun eta geminatuaren arteko kontraste batekin parekatzen duena (Larry Traskek uneren batean egin bezala). Barne-berreraiketa saio berriago batzuen arabera, *fortes* eta *lenes* kontsonanteak dauzkan sistema halako bereizketarik egiten ez zuen egitura sinpleago batetik letorke, zeinean fonemen kopurua, ondorioz, askoz ere apalagoa zen.

Alderdi gramatikalari begiratu gero, aitzineuskararen irudia lausoagoa da orokorrean. Zenbait hipotesi garatu izan dira, egiantz maila ezberdinekoak, aitzineuskararen balizko morfologia eta sintaxiaren gainean, kasu batzuetan gramatikalizazioaren teoria bezalako tresna indartsuak erabiliz. Izenaren forma deklinatuek geruza kronologiko ezberdinak dituzte, marka bakun eta konposatuetan islatzen direnak. Jatorrizko forma kopurua mugatua zela dirudi, gaur egun euskarak duen egituratik urrun samar legokeena. Nahiko garbi dago, halaber, aditz paradigmak izenordainen eta aditzoinen aglutinaziotik sortu zirela, hurrengo adibideetan bezala: *nator* (< **ni-da-tor*, ni-orainaldia/inperfektiboa-erroa) edo *gatoz* (< **gu-da-tor-z*, gu-orainaldia/inperfektiboa-erroa-plurala).

Egitura sintaktikoari dagokionez, funtsezko aldakuntzaren bat berreraiki izan da batez ere hitzen oinarritzko hurrenkeran. Gaur egun hitz ordena SOV da, baina Ricardo Gómezek egindako proposamenaren arabera, aitzineuskararena VSO izan zitekeen. Halako hitz ordena batekin tipologikoki bat letorke euskarak duen NAdj egitura (alegia, adjektiboa izenaren ostean), historian zehar lekukotua dagoen bakarra. Hala ere, beste aukera batzuk ere posible dira. Sintaxiak aitzineuskararen berreraiketaren alderdi menturazkoena (baita espekulatiboena ere) izaten jarraitzen du, nolana ere.

13. Lergako inskripzioa (Nafarroa).


13. The Lerga inscription (Navarre).



13

emerged out of the agglutination of pronouns and the verb base, such as *nator* "I am coming" (< **ni-da-tor*, I-present/imperfective-root) or *gatoz* "we are coming" (< **gu-da-tor-z*, we-present/imperfective-root-plural).

In its syntactic structure, the Basque language may have suffered some important alteration in its basic word order, which today is SOV. Some proposals, such as that of Ricardo Gómez, attribute Proto-Basque a VSO order, in which there would be a congruent NAdj (noun-adjective) order that characterises Euskara today and that is the only order of which there is any evidence through its history. Yet there are, of course, other possibilities. The syntax of Proto-Basque continues to be the most perilous and speculative aspect of its reconstruction.



Euskalkien aniztasuna

Euskararen dialektoen arteko aldea oso nabarmena da. Europa osoan, agian beste eskualde txiki batean bakarrik, Eslovenian, da hain begi bistakoa dialektoen aniztasuna. Dialekto eta hizkeren arteko aldeaz ari garenean, gutxienez bi kontuz ari gara. Alde batetik, hizkera batzuk beste batzuei buruz bereizten dituzten ezaugarriez. Bestetik, dialektoen arteko urruntasun linguistikoaz. Azken hori dialektoen arteko elkar-ulermenaren arabera neurtzen da. Ulermen hori ez da berehalakoa, ez eta hurrik eman ere, euskalkien kasuan, bereziki mendebaleko eta ekialdeko muturretan. Aldaera linguistikoak, gainera, kilometro karratu gutxitan sumatzen dira. Euskaldunek kontatu ohi dute, ondoko herrira bizitzera joan bezain laster konturatzen direla beren jaioterriko eta auzo-herriko hizkeren arteko ezberdintasun nabarmenaz. Gaur egun, euskalkiez gairik aldaera estandarrik (*euskara batuak*) eta euskalkiek, ahozko komunikaziorako erabiltzen direnek, elkar elikatzen dute.

Louis-Lucien Bonapartek, Napoleonen ilobak, 1863an, euskalkien lehen mapa prestatu zuen. Lehenago, beste idazle batzuek, Manuel Larramendik XVIII. mendean, adibidez, emana zuten euskalki ezberdinen berri. Bonaparteren lanetan zortzi euskalki aipatzen dira: gipuzkera, bizkaiera, iparraldeko nafarrera garaia, hegoaldeko nafarrera garaia, lapurtera, mendebaleko nafarrera beheara, ekialdeko nafarrera beheara eta zuberera. Euskalki bakoitzak bere barne-sailak dauzka: egile frantsesak 26 azpieuskalki eta 50 barietate lokal kontatu zituen guztira. Erronkaribarko azpieuskalkia (Bonapartek zubererarekin lotu zuena) XX. mendearen bukaeran desagertu zen, azken hiztuna, Fidela Bernat, 1991n hil baitzen. Historian zehar literaturan lau euskalki erabili

- 14.** Menéndez Pidalen mapa, ustez, euskarak historian zehar izan duen zabalpen handiena erakusten duena.
- 15.** 1961eko urtarrilaren 22an Errenteriako Herriko Etxean egindako ekitaldia, Koldo Mitxelena Euskaltzaindian sartzea zela-eta.

Dialectal Diversity

There is major dialectal variation within the Basque language. In Europe, probably only one other not so extensive region, Slovenia, matches this kind of dialectal diversity. When we refer to the differences among dialects, we are referring to at least two issues: the set of features which single out some varieties as different from others; and the linguistic distance between dialects, measured in terms of mutual comprehension among the speakers of one dialect and another. This is not altogether automatic or guaranteed in the case of Basque dialects, especially between its extreme western and eastern variants. Linguistic variety is concentrated, moreover, in a reduced geographical area: it is quite typical to hear Basque-speakers who moved from one area to another quite near and immediately noticed a significant contrast in the way the language was spoken between their own and their neighbours'. Nowadays, the supra-dialectal or standard variety of Basque (*Euskara Batua*) coexists with dialects, which are maintained for oral communication.

Louis-Lucien Bonaparte, Napoleon's nephew, drew up the first dialectal map of Euskara in 1863. Previously, other authors like Manuel de Larramendi in the eighteenth century had been aware of the existence of different dialects. Eight dialects were established by Bonaparte's work: Guipuzcoan, Biscayan, Northern Upper Navarrese, Southern Upper Navarrese, Labourdin, Western Lower Navarrese, Eastern Lower Navarrese and Souletin. Furthermore, each dialect was characterised by its own internal differentiation: the French author registered a total of



dira nagusiki: ekialdetik mendebalera, zuberera, lapurtera, gipuzkera eta bizkaiera.

Gaur egungo ikerketetan (bereziki, Koldo Zuazoren lanetan) proposatzen da euskalkiak bost taldetan sailkatzea: mendebalekoan, erdialdekoan, nafarrean, nafar-lapurtarrean eta zuberotarrean, hain zuzen ere. Gertatu ohi den bezala, ezaugarri linguistikoen arteko diferentziak elkarrengandik urrunen dauden eremuetan metatzen dira, hots, mendebaleko euskalkian (bizkaieran) eta zubereran (Euskal Herriko ekialdeko muturrean).

Diferentzia horietako batzuen nondik norakoak adierazteko, maila morfologikoan behintzat, komeni da euskalkien hiru eremu handietako adizkiak alderatzea (sailkapen orokor hori Bonapartek berak asmatu zuen):

Mendebaldekoa	Erdialdekoa	Ekialdekoa	Euskara Batua
<i>dot</i>	<i>det</i>	<i>dut</i>	<i>dut</i>
<i>dau</i>	<i>du</i>	<i>du</i>	<i>du</i>
<i>deust</i>	<i>dit</i>	<i>daut</i>	<i>dit</i>
<i>eban</i>	<i>zuan</i>	<i>zuen</i>	<i>zuen</i>
<i>eutsan</i>	<i>zion</i>	<i>zion/zakon</i>	<i>zion</i>
<i>egingo</i>	<i>egingo</i>	<i>eginen</i>	<i>egingo/eginen</i>

Adizkien zerrenda horrek mendebaleko eremuaren berezitasuna ikusarazten du, beste eremuekin bat-etortze eta antzekotasun gutxien baitu. Erdialdekoa eta ekialdekoa, ordea, elkarren antzekoagoak dira.

Ahaleginak egin izan dira euskalkien arteko banaketa idazle klasikoek aipatzen dituzten euskal leinu protohistorikoen garaia arte atzeratzeko (ikus *aurrerago*). Hala ere, gaur egun, adostasuna dago berriagotzat jotzeko, ez Erdi Aroa baino lehenagokotzat. Halaxe pentsatzen zuen oraindik ere historiako euskalaririk handientzat jotzen denak, Koldo Mitxelenak, eta halaxe pentsatzen dute oraingo dialektologoen. Euskalkien eta Erdi Aroko elizbarrutien arteko mugak elkarrekin etorri ohi dira (Iruñea, Armentia-Calahorra, Baiona, Akize eta Oloroe ziren euskal elizbarrutietako egoitzak). Horrek ez du esan nahi VII. edo VIII. mendeak baino lehen euskara sistema unitario bat zenik, inolako diferentzia dialektalik gabea, baizik eta, besterik gabe, gaur egungo euskalki banaketa, gehienez ere, garai horretakoa dela, ez lehenagokoa.

twenty-six sub-dialects and fifty local varieties. The sub-dialect of Roncal/Erronkaribar (which Bonaparte associated with Souletin) disappeared in the late twentieth century with the death of its last speaker, Fidela Bernat, in 1991. There are mainly four dialects that have cultivated a literary tradition historically: from east to west, Souletin, Labourdin, Guipuzcoan and Biscayan.

In recent research (especially that of Koldo Zuazo), Basque dialects have been classified into five groups: the Western dialect, the Central dialect, Navarrese, Navarrese-Labourdin and Souletin. Differences in linguistic features are most evident, as is usually the case, in areas that are located the furthest away from one another: in this case between the Western dialect (Biscayan) and Souletin (in the far eastern part of the Basque-speaking area).

In order to illustrate the extent of these differences, at least in a morphological sense, one might compare forms in three macrodialectal areas (a generic grouping employed by Bonaparte himself):

Western	Central	Eastern	Gloss
<i>dot</i>	<i>det</i>	<i>dut</i>	"I have (it)"
<i>dau</i>	<i>du</i>	<i>du</i>	"(S)he has (it)"
<i>deust</i>	<i>dit</i>	<i>daut</i>	"(S)he has (something to me)"
<i>eban</i>	<i>zuan</i>	<i>zuen</i>	"(S)he had it"
<i>eutsan</i>	<i>zion</i>	<i>zion/zakon</i>	"(S)he had (something to me)"
<i>egingo</i>	<i>egingo</i>	<i>eginen</i>	fut. part. "to make/do"

This list of verb forms highlights the singularity of the Western area, which has less in common with the remaining areas, while the Central and Eastern areas are in this respect more similar to one another.

Despite attempts to attribute dialectal variants to the proto-historical Basque tribes mentioned by classical authors (see below), there is general agreement today that they are relatively recent and do not predate the Middle Ages. This was the view of Luis Michelena, still considered the principal expert in the Basque language, and contemporary dialectologists still share this opinion. There is a certain degree of concurrence between the geographical limits of these dialects and those of the mediaeval dioceses (Pamplona/Iruñea, Armentia-Calahorra, Bayonne/Baiona, Dax and Oloron). Yet this does not mean that prior to the seventh or eighth centuries the Basque language was a unitary system without any dialectal variation. It simply demonstrates that the foundations of the present distribution were established, at most, during that period and not before.

Hizkuntzaren jatorria eta ideiak haren ahaideez

Miguel Unamunok, euskarari buruz 1884an irakurri zuen doktore-tesiaren epigrafean, Jean-Jacques Ampère filologo eta historialari frantsesaren aipamen bat sartu zuen. Horren arabera, «euskarak eta zeltak pribilegio bat partekatu dute: burutaziorik bitxieneen mintzagaia izan izana». Ordurako asko esana bazen, euskarari buruz hurrengo mendean garatuz joan diren hipotesiek, gaur egun, hizkuntza zelten gaisetarik jartzen dute oso, horien harreman linguistikoez, barnekoez zein kanpokoez, ez baitago inolako dudarik. Aitzitik, euskara genetikoki isolaturiko hizkuntza batenez, neurrikerik ez duten edonolako usteetarako lur emankorretan gaude, bereziki isolamendu hori nahitaez zuzendu egin behar dela pentsatzen dutenen artean, posible izan edo ez.


Horregatik, euskararen jatorriaz denetariko iritziak adierazi izan dira (eta adierazten dira beti), gehienetan ez buru ez buztan ez dutenak. Egia esan, gutxi dira euskararekin alderatu ez diren familia linguistiko eta hizkuntza isolatuak, ustezko ahaidetasun-harremanen bila.

Argi eta garbi esan daitekeen gauza bakarra da gaur egungo euskara Akitaniako antzinako inskripzioetako hizkuntzarekin loturik dagoela. Inskripzio horiek K. o. I. eta III. mende bitartekoak dira eta 400 bat antroponimo eta 70 teonimo biltzen dituzte, Joakin Gorrotxategiren lanetan modu bereziki xehean aztertuak izan direnak. Akitaniera edo akitaniera-baskoiera, garai hartan, Pirinioez iparraldean ez ezik, hegoaldeko zenbait tokitan ere mintzaten zen euskararen forma zahar bat izan zitekeen edo, bestela, euskaratik genetikoki oso gertu zegoen hizkuntza bat, bi sistemetan ageri diren egiturazko bat-etortzeek frogatu eta inskripzioak osatzen dituzten hitz batzuek adierazten duten bezala: *nescato* (cf. eusk. *neska*), *cison* (cf. *gizon*), *sembe* (cf. *seme*), *andere* (cf. *andere/andre*), *ombe* eta *umme* (cf. *ume*), baita *-tar/-thar* kidegoko atzizkia ere.

Akitanierarekiko lotura horretatik aparte, euskara hizkuntza enbor batekin batu nahi duten ahaidetasun-hipotesi guztiek ez ohi dute oinarri enpirikorik izan, ez eta zorrotasun metodologikorik ere. Sobera zehaztu gabe, bi talde historiko eratu daitezke euskarari buruzko ideiekin: hipotesi klasikoak deitu ditzakegunak, alde batetik, eta modernoagoak, bestetik.


Klasikoen artean, lehenbizi, eusko-iberismoa dago. Teoria horrek euskara iberierarekin lotzen du, hots, Hispaniako antzinako hizkuntza ez-indoeuroparrarekin (ustez, iberierazko *il-* eta euskarazko *hir-i/hur-i* hitzen artean dagoen bat-etortzetik abiaturik). Besteak beste, Wilhelm von Humboldttek sinetsi zuen teoria horretan XIX. mendean. Ideia horren aldekoen arabera, bi hizkuntzak enbor berekoak dira eta, ikuspegi horretatik, Antzinatean Iberiako Penintsulako eremu gehienean hitz egin zen hizkuntzaren azken aztarna izanzen litzateke euskara. Edonola ere, iberierazko inskripzioak euskarazko itzulpenen bidez ulertzeko irudimen handiz behin eta berriro eginiko ahalegin guztiak alferrikakoak izan dira, dudarik gabe. Euskararen eta iberieraren arteko konparaziotik ondorioztatzen ahal diren formazko eta egiturazko antzekotasunak, gehienez ere, bi sistemen arteko harreman geografiko edo, hobe, kultural berezi batean pentsarazten

16. Donemiliaga Kukulako glosak (X-XI. mendeak).



16

Glosa emilianense 31, fol. 67v
Códice 60 de la RAH



Glosa emilianense 42, fol. 68v
Códice 60 de la RAH

Origins of Euskara and Theories about its Relation to Other Languages

In the epigraph of his 1884 doctoral thesis on the Basque language, Miguel de Unamuno quoted the French philologist and historian Jean-Jacques Ampère, for whom “Basque has shared with Celtic the privilege of having been material for highly extravagant reflections”. If by that time already much had been said, the hypotheses on the origins of Euskara throughout the century that followed have led the Basque language to a position way beyond that of its Celtic counterparts (about whose internal and external linguistic relations there is, now, little doubt). By contrast, for a genetically language isolate like Euskara there is a limitless area for speculation, especially for those who believe that this isolation must be necessarily corrected, whether it can or cannot.

For this reason a variety of colourful and almost always far-fetched opinions have been expressed (and continue to be expressed) about the origins of Euskara. Indeed, there are few linguistic families and language isolates with which Euskara has not been associated in the pursuit of presumed kinship relations.

The only thing one can say with any certainty today is that contemporary Euskara does share ties with the language of ancient inscriptions in Aquitaine, dating from between the first and third centuries CE and containing about four hundred anthroponyms and seventy theonyms which have been studied in special detail in the works of Joaquín Gorrochategui/Joakin Gorrotxategi. This ancient Aquitanian or Vascon-Aquitanian, used at the time both north of and some areas south of the Pyrenees, could easily have been an older form of Euskara or at least a language that was genetically very close to it, as demonstrated by the structural coincidences between both systems and by several words in these inscriptions: *nescato* “girl” (cf. Ba. *neska* “girl”), *cison* “man” (cf. Ba. *gizon* “man”), *sembe* “son” (cf. Ba. *seme* “son”), *andere* “lady” (cf. Ba. *andere/andre* “lady”), *ombe* and *umme* “baby” (cf. Ba. *ume* “baby”, male and female), as well as the suffix of belonging *-tar/-thar*.

16. Glosses of San Millán de la Cogolla (10-11th centuries).



digu. Halako zerbait egon daiteke hizkuntza-egituren hein bateko hurbilketaren atzean.

Beste hipotesi klasiko samar batek euskara Kaukasoko hizkuntzen multzoan biltzen du. Hizkuntzalari askok (horietariko batzuk prestigiodunak, hala nola, René Lafon), XX. mendean ahalegin nabarmenak egin zituzten euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen arteko lotura frogatzeko. Antzekotasun lexiko batzuk eta gramatikalen bat aurkitu ziren Kaukasoko talde batzuekin zein besteekin, baina lotura genetikorako saio horrek bi arazo ditu. Alde batetik, antzekotasunen portzentajeak –batzuetan bat-etortzeenak– ez du behin ere gainditzen halabeharrezkotzat jotzen den muga (oso antzeko emaitzak lortzen dira hizkuntza uraldar edo afro-asiarrek alderatuz gero). Bestaldetik, ez da batere frogatu Kaukasoko hizkuntza guztiak elkarri lotuak daudenik, hori bakarrik ziurtzat jotzen baita georgiera, mingreliera, lazera eta svanera biltzen dituen talde kartveliarraren kasuan. Areago, talde kartveliarrarekiko konparazioak oso azaleko emaitzak ematen ditu, balio zientifiko gutxikoak. Izan ere, haren aldekoek, maiz, uko egin diote denek erabili beharreko arauen aplikazioari, horien artean, bat-etortze fonologiko erregularren identifikazioari, hizkuntzen arteko ahaidetasunak frogatu nahi badira. Adibidez, georgiera tipologia aktiboko hizkuntza (eta ergatiboduna) delako, horrek ez du esan nahi litekeena dela hura euskararen ahaidea izatea. Halaber, egitura nominatibo-akusatiboko hizkuntzak ez daude nahitaez elkarri lotuak. Familia berean (indoeuropar hizkuntzenez, kasu) hizkuntza ergatibodunak (hindia eta kurduera) eta ergatiborik gabeko hizkuntzak (ia gainerako guztiak) egon daitezke.

Bide egin duten beste iritzi batzuek bereberearekin edo hizkuntza finougriarrek lotzen dute euskara. Azken hamarkadetan, euskararekin ustez lotura genetikoa dutenen zerrendari hautagai asko gehitu zaizkio, hala nola, txinera, hizkuntza paleosiberiarrak, kikuyua (Kenian hitz egiten den hizkuntza), antzinako piktoen mintzaira edo Iparraldeko Amerikako hizkuntza batzuek osaturiko na-dene makrofamilia. Proposamen hauetarik, batek ere ez du gutxieneko sendotasun metodologikorik seriotan hartua izateko.

17. Susoko eta Yusoko monasterioen ikuspegia (Donemiliaga Kukulan).

17. View of the monasteries of Suso and Yuso (in San Millán de la Cogolla).

Beyond this connection with Aquitanian, all the hypotheses which attempt to link Basque with a specific language group generally lack both an empirical foundation and methodological rigour. If only for the record, the ideas that have circulated about the Basque language can be classified into two groups: those we might term classic and more modern hypotheses.

Among the classic interpretations there is the Basque-Iberian theory professed by (among others) Wilhelm von Humboldt in the nineteenth century. This theory links Basque to Iberian, the ancient non-Indo-European language of Hispania (based on supposed connections such as the Iberian *il-* “city” and Basque *hir-i/hur-i*). According to proponents of this idea, both belonged to a common language family and Euskara would even be the last vestige of the tongue spoken throughout the Iberian Peninsula in antiquity. Whatever the case, repeated and imaginative attempts to understand Iberian inscriptions by means of translations based on Euskara have clearly been in vain. From the formal and structural similarities that might be extracted from a comparison between Iberian and Basque one deduces, in reality, a special geographical or area relationship between both systems which might have derived, precisely, into a certain mutual though partial convergence of their linguistic structures.

Another of the relatively classic hypotheses is that linking Euskara to the Caucasian languages. Various linguists—some of them prestigious, such as René Lafon—dedicated considerable effort through the twentieth century to demonstrating the relationship between Basque and the Caucasian languages. Certain lexical similarities and some grammatical resemblances were found with one or another Caucasian group, but there was a twofold problem with these attempts: on the one hand, the percentage of similarities—even of mere coincidences—never exceeded the threshold that one might consider purely accidental (for example, similar results are achieved in a comparison with Uralic and Afro-Asiatic languages); on the other, it has never been even remotely demonstrated that the Caucasian languages are all related amongst themselves – something that is only certain in the Kartvelian case (Georgian, Mingrelian, Laz and Svan). Yet even comparison with the Kartvelian group alone only throws up superficial and not very scientifically rigorous results, given that its practitioners have all but given up applying the universally accepted rules, among them the identification of regular phonological correspondences, to demonstrate linguistic relationships. The fact that Georgian, for example, is a language of an active typology (with the ergative case) does not make it any more likely to genetically resemble Basque. Similarly, other languages are not necessarily related just because they share their nominative-accusative structure. Moreover, in the same language family—such as that of Indo-European—one might find both ergative (Hindi and Kurdish) and non-ergative (almost all the rest) languages.

Other widely held assumptions link Basque to the Berber or Finno-Ugric languages. And in recent decades several other candidates have been added to the list of supposedly genetically related languages to Euskara: from Chinese or the Paleo-Siberian languages to Kikuyu (spoken in Kenya), including the language of the ancient Picts and, among others, the Na-Dene languages of North America. None of these theories has the sufficient methodological grounding to be taken seriously.

Azken aldi honetan, nazioartean entzute handia duen hizkuntzalari baten (Theo Vennemannen) eskutik, beste hipotesi bat gorpuztu da, ez ahaidetasunaz, euskararen jatorriaz baizik. Oso hipotesi eztabaidagarria da, baina, batera, oso erakargarria adituak ez direnentzat. Vennemannek antzinako Europako toki-izenak aztertu ditu eta, haren arabera, bertako lehen bizilagunen hizkuntza euskararen forma zahar-zahar bat izan liteke, *Proto-Vasconic* deritzona. Euskara Europaren jatorriarekin lotzeko ideia berria ez bada ere, Vennemannen eta haren kolaboratzaileen metodoa bada. Izan ere, tokien eta ibaien izenei buruzko burutazio etimologikoak eta populazio genetikaren datuak konbinatzen ditu. Arazo nagusia hau da: *antzinako europa* delakoaz duen ikuspegia ezbaian jarri dela, bai indoeuropar hizkuntzetako adituen aldetik, bai euskalarien aldetik ere eta, gainera, datu genetikoa, hizkuntza frogarik gabe, ez dira batera erabakigarriak.

Azkenik, Juliette Blevinsek, nazioartean izena duen beste hizkuntzalari batek, aitzineuskararen eta aitzinindoeuoperaren arteko lotura genetikoa aldarrikatu du. Haren aburuz, bi hizkuntza horiek enbor bereko adarrak izan litezke. Proposamen erradikala da, eta oso eztabaidagarria, aitzineuskararen ustezko ezaugarri fonologikoen berreraiketa alternatibo eta tarteka oso berezi batean oinarritzen dena.

18. Joana Albretekoa, Nafarroako erregina (1555-1572).



18. Jeanne d'Albret, Queen of Navarre (1555-1572).

In the last decades, an internationally renowned linguist, Theo Vennemann, has been developing a hypothesis not of a relationship with other languages but, rather, of the origins of Basque. This has been highly controversial but also attractive to non-specialists. According to Vennemann's analysis of ancient European toponymy, the language of its original populations would have been a remote form of Euskara, which he calls Proto-Vasconic. Although the notion of associating Basque with European origins is nothing new, the methods of Vennemann and his collaborators are, since they combine etymological speculation about toponymic and hydronymic forms with the genetic data of populations. The main problem with this is that his notion of what he takes as 'Ancient European' has been seriously questioned by both Indo-European and Basque specialists. Moreover, genetic data without the support of linguistic evidence are not at all conclusive.

Finally, in recent years Juliette Blevins—another linguist of international renown—has suggested the existence of a genetic connection between Proto-Basque and Proto-Indo-European, languages that would possibly be branches of a common family. It is a radical and profoundly controversial argument, aided by an alternative and occasionally highly personal reconstruction of several phonological features that supposedly characterised Proto-Basque at the time.

In sum, there is no solid empirical reason to believe that Basque is related to any other systems beyond ancient Aquitanian, or to think that it was ever spoken much further than the present-day geographical area its speakers inhabit today. From a chronological point of view, there is of course no proof of its origin, despite what has been occasionally said about nothing less than the Upper Palaeolithic (Stone Age).

As regards contacts between Euskara and its surrounding languages, its influence (however limited) has traditionally been taken for granted in the formative process of Romance languages (Latin derivatives) like Navarrese, Riojan, Gascon and even—although with much caution—Castilian, especially with regard to the phonological and lexical terrain. Among the clear loanwords of Basque origin in Romance languages one can mention forms such as Spanish *izquierdo* "left" (< Ba. *ezkerr(a)* "left") and *chatarra* "scrap, junk" (< Ba. *zatarr(a)* "rag"). Basque gradually adopted Romance features into its grammatical and lexical structure in what was a mutually influential relationship marked by alternations according to historical era, although with an undeniable greater tendency for Euskara to borrow lexically from Latin and the Romance languages. In its grammatical structure, too, the Basque language has replicated some features originating in Romance systems, including the creation of articles, the tendency to lose the distinction between the instrumental and the comitative cases and the differential marking of the object—by means of dative markers—when this is animate (in some varieties of the language).

Meanwhile, Basque left its mark in centuries past in two pidgins (mixed codes), namely in Iceland and the eastern coast of Canada (utilized by Basque whalers); in the slang, in use almost up to the present-day, of tile-makers and stonemasons in Galicia, Asturias and Northern Castile (Mascuence, Xíriga, and so forth); and in Erromintxela,

Laburbildurik, ez dago arrazoi enpiriko sendorik pentsatzeko euskarak ahaidetasun-harremanak dituela beste sistema batzuekin, antzinako akitanieraz gain, ez eta, haren jatorria euskaldunak gaur egun bizi direneko eremutik asko urruntzeko ere. Ikuspegi kronologikotik, ez daukagu, bistan da, inolako frogarik euskararen jatorria nora eta Goi Paleolitara (hots, Harri Arora) eramateko, inoiz halaxe esan den arren.

Euskararen eta haren inguruko hizkuntzen arteko loturari dagokionez, Nafarroako, Errioxako, Gaskoiniako eta, askoz duda gehiagorekin, Gaztelako erromantzeak osatzeko prozesuan eragin mugatua izan zuela pentsatu izan da, gehienbat fonologian eta lexikoan. Erromantzeek euskaratik hartutako hitz seguruen artean gaztelaniazko *izquierdo* (< *ezkerr(a)*) edo *chatarra* (< *zatarr(a)*) daude, esaterako. Bere aldetik, euskarak erromantzeen ezaugarri asko bildu ditu bere egitura gramatikalean eta lexikoan. Elkarrenganako eragineko harreman bat izan da. Historiako garaien arabera, eragin horiek txandakatu egin dira, baina ez dago dudarik euskarak latinari eta hizkuntza erromanikoei harturiko mailegu lexikoak nagusi direla. Egitura gramatikalean ere, euskarak hainbat ezaugarri mailegatu ditu erromantzeekiko ukipenaren ondorioz, tartean artikuluen sorrera, kasu instrumentalaren eta komitatiboaren arteko bereizketaren galerarako joera edo objektuaren markaketa berezitua –datibozko marken bidez– objektua biziduna denean (hizkera batzuetan).

Orobat, pasa diren mendeetan, euskararen aztarna *pidgin* edo kode misto banatan igartzen da, Islandian eta Kanadako ekialdeko kostan, Euskal Herriko baleazaleek eramanik, eta, ia gaurdaino, Galiziako, Asturietako eta Gaztelaren iparraldeko hizkeretan (*mascuence*, *xiriga*, eta abarretan) eta *motxaile* edo ijito euskaldunen *erromintxela* hizkuntzan ere bai. Euskarazko bi hitz gutxienez (*akelarre* eta *silueta*, *zilueta/zulueta*-tik datorrena) mendebaleko hizkuntza askoren lexikoaren osagaiak dira.

19. Esteban Garibai
(1533-1599).

a language of Basque Roma, called *Motxaileak* in Euskara. At least two words of Basque origin—*akelarre* (from *akelarre* “meadow of the male goat”) and *silhouette* (from *zilueta/zulueta* “place of holes”)—are part of the lexicon of several Western languages.



19. Esteban de Garibay
(1533-1599).


Euskararen muga historikoak

Aurreko atalean azaldu den bezala, euskara antzinako iberieraren hondar bat zela pentsatzeko behar adina froga ez daude eta, beraz, ezin da ondorioztatu, erromatarrek etorri baino lehen, Portugal eta Espainia osoan hitz egiten zela. Aitzitik, baditugu argumentuak euskararen eta gaur egungo Frantziaren hego-mendebalean mintzatzen zen akitanieraren arteko harreman genetikoaren alde jotzeko. Deigarria bada ere, mintzaira horretako ia inskripzio guztiak gaur egun euskaraz mintzatzen deneko lurraldetik urrunen dagoen Akitaniaren partean aurkitu dira. Hala ere, pentsatzen ahal dugu euskara Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan ere hitz egiten zela. Hiru herrialde horiek Novempopulaniaren barruan zeuden III. mendean.

Duela bi mila urte, gaur egungo Euskal Herrian zazpi leinu edo *gens* bizi ziren. Baskoiak Nafarroan eta Gipuzkoako, Huescako, Zaragozako eta

20. Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* (1881).

21. Leizarragaren Testamentu Berria (1571).



20



20. *Peru Abarca*, by Juan Antonio Moguel (1881).

21. Leizarraga's New Testament (1571).

21

The Historical Limits of Euskara

As noted previously, there is not sufficient evidence to consider Basque the remnant of ancient Iberian. As such, one cannot conclude that, before the arrival of the Romans, it was spoken throughout present-day Portugal and Spain. Yet there are plausible arguments defending the idea of a connection between Euskara and ancient Aquitanian, formerly spoken in present-day southwest France. Curiously, almost all the inscriptions in this language were found in that part of the region furthest away from the modern Basque-speaking area. We might assume, however, that Euskara was also spoken in Labourd, Lower Navarre and Soule, which by the third century were all part of the province of Novempopulania.

Two thousand years ago, the territory today covering Basqueland was populated by seven tribes or *gentes*. The Vascones lived in Navarre and parts of the provinces of Guipuzcoa, Huesca, Zaragoza and Logroño; the Varduli, in most of Guipuzcoa and a strip of land in Alava;

Logroñoeko probintzien zati banatan zeuden. Barduliarrak, Gipuzkoaren zatirik handiengan eta Arabako lur-zerrenda batean. Karistiarrak Bizkaiaren eta Arabaren gehiengan eta Gipuzkoaren mendebalean. Autrigoiak, Bizkaiko Enkartazioetan eta Arabaren, Santanderren eta Burgosen zatietan. Errioxa, zentzu zabalean ulertua, Arabaren, Nafarroaren eta Burgosen zati bana barne, beroiena zen. Lapurdi-Baxenabarreetan, eta Landen hegoaldean, geroko Novempopulaniako populu bat, tarbeliarrak, ziren nagusi. Eta Zuberoan, beste bat, sibilateak, herrialde honi izena eman ziotenak.

Hasiera batean baztertzekoa izan ez badadi ere, gaur egun, eskura dauzkagun iturri literario, arkeologiko eta linguistikoak ez dira aski «baskoitze berantiarra» izeneko hipotesiari eusteko. XVII. mendean, Allande Oihenart zuberotar historialariak, Akitaniako inskripzioak ez zezagutzanak, pentsatu zuen baskoiak zirela Antzinateko leinu euskaldun bakarra eta, Erdi Aroaren hasieran, beste leinuen lurraldeak kolonizatu zituztela. XX. mendean, Adolf Schultenek lagundu zuen Oihenarten tesia zabaltzen, Joan Biclarkoa eta Gregorio Tourskoa Erdi Aro Garaiko kronisten pasarte batzuen interpretazio behartu batez baliatuz. Claudio Sánchez-Albornozek nafarrentzat jatorri etniko diferente bat proposatu zuen, arabarrak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak berandu euskaldunduriko indoeuropar herriak zirelakoan. Hala ere, zaila da ulertzen nola inposatu ahal izan zieten beren hizkuntza baskoiek, Euskal Herriko leinu protohistorikoetan erromatartuena osatzen zutenek, beste *gens*-ei. Izan ere, gaztelaniazko *vascogado* hitzak ez du 'baskoitua' esan nahi, baskoien zabalpenaren aldeko batzuek adierazi ohi duten bezala, 'euskalduna' baizik: XIX. mendea arte nafar gehienak *vascogadoak* ziren eta arabar eta enkartau asko ez ziren *vascogadoak*, *romanzadoak* ('erromantze-hiztunak') edo *latinadoak* ('latin-hiztunak') baizik.

Zinez deigarria da Hego Euskal Herriko leinuen herrien izen gehienak, Ptolomeok II. mendean bildu zituenak, ezin direla interpretatu euskararen bidez. Salbuespen batzuk daude, denak baskoien eremuan, honako hauek: *Pompaelo* eta *Andelos* (bi kasuetan, bigarren osagaiak *(h)il dirudi, hots, 'hiri': Iruñea eta Andion, Mendigorritik gertu, hurrenez hurren) eta *Oiasso* ('oihan + zu': Irun/Oiartzun). Ptolomeoren tauletako euskarazko toki-izenen urritasunak Oihenarten kontrakoa pentsarazi die egile batzuei, horien artean, Ulrich Schmoll, Jürgen Untermann eta Francisco Villar (oso hipotesi iradokigarria, baina zuberotarrarena bezain eztabaidagarria), alegia, historia aurreko garaian euskara bakarrik Akitanian hitz egiten zela eta hortik Pirinioez hegoaldera ekarri zela, gure aroaren aurreko I. mendetik gure aroko VII. mendera bitarte. Lergako inskripzioa, Zangozako merindadearen hegoaldean, Nafarroan, II. edo III. mendekoa, euskararen antzeko hizkuntza bateko pertsona-izenak biltzen ditu eta, beraz, beste pertsona-izen batzuekin eta *Pompaelo*, *Andelos* eta *Oiasso* toki-izenekin batera, ustezko akitaniar kolonizazioaren lehen adibideetako bat izan liteke.


Baditugu, beraz, froga epigrafikoak, duela bi mila urte gaur egungo euskararen aurrekaria den hizkuntza bat Akitanian eta, behintzat, Nafarroako toki batzuetan hitz egiten zela adierazten dutenak, eta zantzu batzuk, pertsona eta jainko-izenak barne, barduliarren eta karistiarrren lurraldeei buruz gauza bera, akaso tentu gehiagoz, pentsarazten digutenak. Baina austrigoien eta baskoien beren errealitatea are nahasiagoa da, ondoren azaltzen saiatuko garen bezala (ez gara beroiez luzatuko, garbi baitago zeltak zirela).

the Caristii, in most of Biscay and Alava, as well as western Guipuzcoa; and the Autrigones, in the Encartaciones/Enkartazioak of Biscay and in pockets of Alava, Santander and Burgos. La Rioja, in its widest sense, including parts of Alava, Navarre and Burgos, belonged to the Berones. The Tarbelli, the people of the future Novempopulania, lived in Labourd and Lower Navarre, as well as in the southern part of Les Landes. And in Soule there lived another of those peoples, the Sybillates, whose name is related to that of this territory.

Although in principle one could not rule out the idea, for the time being, there are insufficient literary, archaeological and linguistic sources to postulate the hypothesis of 'late Vasconisation'. In the seventeenth century the Souletin historian Arnauld Oihénart/Allande Oihenart, not knowing anything of the Aquitanian inscriptions, thought that the Vascones were the only Basque-speaking tribe in ancient times and deduced from this that they must have colonised the territories of the other tribes at the beginning of the Middle Ages. By the twentieth century Adolf Schulten helped to spread Oihénart's argument, basing this on a forced interpretation of fragments of early medieval chroniclers John of Biclark and Gregory of Tours. Claudio Sánchez-Albornoz even argued that Navarrese had different ethnic origins to Alavese, Guipuzcoans and Biscayans, who, according to him, were Indo-Europeans that were later made culturally Basque. However, it is difficult to see how the Vascones—the most Romanised of all proto-historic Basque tribes—could impose their language on the other gentes. To be sure, the word *vascogado* (one of the Spanish words for "Basque") does not mean "Vasconised" as some adherents of the Vascones' expansion theory suggest, but simply "Basque-speaker": until the nineteenth century, most inhabitants of Navarre were *Vascogados*, while many inhabitants of Alava and the Encartaciones/Enkartazioak were not called *Vascogados* but *Romanzados* ("Romance-speakers") or *Latinados* ("Latin-speakers").

It is certainly striking that most place names of these peninsular Basque tribes mentioned by Ptolemy in the second century are impossible to interpret via Euskara. Among the exceptions to this (all of which were in the Vascones' territory) are: on the one hand *Pompaelo* and *Andelos* (whose second element in both cases appears to be *(h)il "city", Pamplona and Andion, near Mendigorria in Navarre), and on the other *Oiasso* ("place of the woods", Irun/Oiartzun). This lack of Basque place names in Ptolemy's lists leads authors like Ulrich Schmoll, Jürgen Untermann and Francisco Villar to defend the opposite of Oihénart's theory, and their hypotheses are similarly both intriguing and questionable: namely, that in proto-historical times Euskara was only spoken in Aquitaine and later spread south of the Pyrenees, between the first century BC and the seventh century AD. An inscription in Lerga, near Sangüesa/Zangoza, Navarre, dating from the second or third centuries, presents some anthroponyms in a language identified as Basque-like. This, together with some other anthroponyms and the names *Pompaelo*, *Andelos* and *Oiasso*, would mark the early stages of this supposed Aquitanian colonisation.

Whilst there is, then, epigraphic proof that a forebear of Euskara today was spoken two thousand years ago in Aquitaine and some parts of Navarre, and there are also indications (in the form of anthroponyms and theonyms) that allow us, perhaps more cautiously, to assume a



22. Antoine d'Abbadie d'Arrast (1810-1897).

Oso litekeena da autrigoiek indoeuropar jatorria izatea, zeltikoa, zehatzagoak izanez gero. Enkartazioen ekialdeko partean euskarazko toponimia badago, baina mendebalekoan ez dago ia-ia. Muga linguistikoa Kolutza eta Serantes mendietako gailurren arteko alegiazko lerro batetik doa eta, gutxi gorabehera, Pisoracatik Flaviobrigara zihoan erromatar galtzadarekin bat egiten du. Halaber, Arabaren mendebaleko muturrean (Artziniegan, Gaubean eta Añanan) eta Trebiñurenekoan, autrigoien lurraldean, euskarazko toki-izenak oso-oso gutxi dira.

Baskoiei dagokienez, Nafarroaren iparraldeko bi herenetan, euskarazko toponimia badago, ez, ordea, hegoaldekoan. Koldo Mitxelenak adierazi zuen bezala, baskoi guztiak ez ziren euskaldunak eta euskaldun guztiak ez ziren baskoiak. Euskararen muga historikoa, gutxi gorabehera, Tafallan dago, Mendialdeak eta Erriberak, Nafarroako bi eskualde tradizionalak, bat egiten duten tokitik oso gertu. Lerro horretaz hegoaldean aipatzea merezi duten salbuespen bakarrak honako bi hauek dira: Murillo el Cuende eta Zarakasteluko eremua, non Erdi Aroaren bukaera arte euskaraz mintzatu baitzen eta euskarazko toponimiak hein batean erronkariar eta zaraitzuar artzainek Bardeara egiten zuten

22. Anton Abadia-Ürrüstoi (1810-1897).

similar situation in the lands of the Varduli and Caristii, the reality of the Autrigones and the Vascones themselves is more complex, as we will see now (we will not spend time on the Berones because there is no doubt as to their Celtic origin).

It is plausible to think that the Autrigones were a people with Indo-European, and more specifically Celtic, roots. There is Basque toponymy in the eastern part of the Encartaciones/Enkartazioak, but there is hardly any at all in the west. The linguistic border runs in an imaginary line from the Colisa/Kolutza and Serantes summits and roughly coincides with the Roman road from Pisoraca to Flaviobriga. Similarly, there is very little Basque toponymy in another area inhabited by the Autrigones: the westernmost part of Alava (Artziniega, Valdegovía/Gaubea and Añana) and of Treviño/Trebiñu.

As regards the Vascones, there is Basque toponymy in the two upper thirds of present-day Navarre, but less so in the south. As Luis Michelena observed, not all Vascones were Basque-speakers and not all Basque-speakers were Vascones. The historical limits of Euskara are to be found more or less around Tafalla, which coincides almost exactly with the boundary between the Mountains (Montaña/Mendialdea) and the Riverbanks (Ribera/Erribera), the two traditional zones in Navarre. The only two exceptions of note to the south of this line are the area of Murillo el Cuende and Carcastillo/Zarakastelu, which was Basque-speaking until the end of the Middle Ages and whose Basque toponymy may have remained in part due to the transhumance of shepherds from the northern Roncal/Erronkaribar and Salazar/Zaraitzu Valleys coming down to the Bardenas/Bardeak; and the area around Lazagurria/Elizagorria, Sesma and Mendavia/Mendabia, where a very residual Basque toponymy remains, which could be a continuation of that in La Rioja.

Apart from these notable exceptions, there is no Basque toponymy south of Tafalla. *Erriberri* (the "New Land" or Extremadura, i.e. "the furthest land") is not exactly the Basque equivalent of Olite, but rather a denomination that Basque-speaking Navarrese from the "Old Land" (**Errizar*) gave to the Romance language-speaking region conquered from the Muslims. *Azkoien*, the supposed Basque name of Peralta, is a neologism dating from the early twentieth century. As regards Alfaro in present-day La Rioja but which was part of the Vascones' territory, its Latin name was *Gracchurris*, the second element of which has been linked with (*h*)*uri* or (*h*)*iri* "city" in modern Euskara. Yet such a connection is by no means certain because in Proto-Basque it should be **(h)il*. Even if it were true, it would prove nothing because it could just be a borrowing from Iberian (though not without some problems). The fourth-century Festus is the only author who points out that *Gracchurris* was previously called *Ilurcis*. It is likely, however, that *Ilurcis* was a misspelling of *Iliturgis*, the modern Mengíbar, in the province of Jaén, Andalusia. Festus' error might be due to the fact that both Alfaro and Mengíbar were founded by Tiberius Sempronius Gracchus. As regards *Calagurris* or present-day Calahorra, it was originally a Celtiberian settlement attributed later to the Vascones. Its name has nothing to do with the Basque word for "red" (*gorri*).

Curiously, there are other areas that nowadays have no Basque influence at all but which do preserve Basque toponymy: for example, northern Aragon, north-western Catalonia, La Alta Rioja and Bureba


transhumantziari esker iraun baitu beharbada, eta Elizagorria, Sesma eta Mendabiako eremua, non euskarazko toki-izen bakan batzuek baitiraute, agian Errioxakoen jarraipena direnek.

Aipatu diren salbuespen horietaz gain, Tafallaz hegoaldean ez dago euskarazko toponimiarik. *Erriberri* ez da, berez, Oliteren euskal izena, **Errizar*-ko nafar euskaldunek musulmanei konkistaturiko eremu erdaldunari emaniko deitura baizik. *Azkoien*, Peraltaren ustezko euskal izena, XX. mendearen hasierako neologismo bat da. Alfarori dagokionez, Errioxan, baina baskoien lurraldean, haren latinezko izena *Gracchuris* da. Horren bigarren osagaia euskara modernoko (*h*)*uri* edo (*h*)*iri*-rekin identifikatu da. Hala ere, identifikazio hori ez da batere segurua (aitzineuskaraz **(h)il* izan beharko luke), eta, balitz, ez luke deus frogatuko, (*h*)*uri* edo (*h*)*iri*, ez arazorik gabe, iberierazko mailegu bat izan litekeelako. Festo, IV. mendean, da *Gracchuris*-en izen zaharra *Ilurcis* izan zela dioen egile bakarra. Litekeena da, baina, *Ilurcis* hutsegite bat izatea, *Iliturgis*-en orde. *Iliturgis* gaur egungo Mengibar da, Jaéngo probintzian, Andaluzian. Festoren akatsa agian gertatu zen bai Alfar, bai Mengibar, Tiberio Sempronio Gracok sortu zituelako. *Calagurris*-i, gaur egungo Calahorrari, dagokionez, hasiera batean zeltiberiarren herri bat izan zen, gero baskoien esku utzi zena, eta haren izenak ez du zerikusirik 'gorri'-rekin.

Bitxia bada, gaur egun batere euskaldunak ez diren beste lurralde batzuek euskarazko toponimia gorde dute. Adibidez, Aragoiren iparraldeak, Kataluniaren ipar-mendebalak, Errioxa Garaiak eta Burgosko probintziako Bureba eskualdeak. Horrek ez du inola ere esan nahi euskara batera Bordeletik Zaragozara eta Santandertik Lleidara bitarteko eremu zabalean hitz egin zenik, maiz entzuten den arren. Gaskoiniaren izena *Vasconia*-tik dator, baina herrialde horretako toki-izen gehienak erromantzezkoak dira (beste askok, baina, aitzineuskararen hondartzat jotzen den -òs atzizkia edo aldaeraren bat biltzen dute). Posible da, erromatarrak etorri zirenean, euskara, edo euskararen antzeko hizkuntza bat, gaur egun Aragoi edo Kataluniarenak diren lurraldeetan mintzatzea, baina ez, pentsatu ohi den bezala, Zaragoza (eta Soria) bezain hegoaldera, bertan euskarazkoak diruditen pertsona-izenak agertu badira ere, eta ez Tossa de Mar bezain ekialdera, oso litekeena baita *Turissa* haren izen zaharrak *Iturritza*-rekin zerikusirik ez izatea. Euskara «Errekonkista» delakoaren garaian hedatu zen Errioxara eta Burebara, Aragoi eta Katalunia gehienean galdua edo galtzear zegoenean. Berez, euskarak luzeago iraun zuen Errioxa Garaiko eta Burebako zenbait tokitan Nafarroako zenbait eremutan baino.

(Burgos). This does not mean at all that Euskara was spoken simultaneously in an area stretching from Bordeaux to Zaragoza, and between Santander and Lleida, as is often argued. The name Gascony derives from *Vasconia* but most place-names in this region are Romance in origin (although many others incorporate the suffix -òs and variants, which has been interpreted as a vestige of Proto-Basque). It is possible that when the Romans arrived, Euskara or a language like Euskara was spoken in what today is part of Aragon and Catalonia; although not (as has been contended) as far south as Zaragoza (and Soria), despite the existence of Basque anthroponyms; or as far east as Tossa de Mar, whose ancient name (*Turissa*) has, more than likely, nothing to do with the Basque *Iturritza* "place of fountains". The extension of Basque into La Rioja and Bureba was the result of the so-called 'Reconquista', when it was already extinct or in the process of becoming so in Aragon and Catalonia. Indeed, Euskara was maintained for longer in certain areas of La Rioja Alta (western La Rioja) and Bureba than in some parts of Navarre.

Euskararen iraupenaren zergatikoak



23

Koldo Mitxelenak zioenez, euskararen historiak ezkututzen duen egiazko misterioa ez da haren jatorria, gaurdaino iraun izana baizik. Harrigarria da, benetan, hizkuntzak Euskal Herrian irautea, pasabide bat baita, beste herri eta beste jende batzuekin beti harremanetan egon dena, Donejakue Bidea, Euskal Herria kostaldetik eta barnealdetik zeharkatzen duena, XI. mendean instituzionalizatu baino lehen eta horren ondoren. Salbuespenak salbuespen, XVI. mendea arte euskara ez zen idatzi eta ez dirudi

23. Agosti Xaho (1811-1858).

erakundeek eta eliteek inoiz aparteko maitasuna izan diotenik.

Zeltek gaur egungo Euskal Herri gehiena kolonizatu zuten. Toki-izen batzuk utzi dizkigute, hala nola *Deba* Gipuzkoan eta *Ultzama* Nafarroan. Etimo batzuk ehuneko ehunean seguruak ez diren arren, antza, euskarak hitz batzuk zor dizkie, adibidez, *maite*, *mando* eta, agian, *izokin*. Ez dakigu zer eragile izan zen erabakigarria, geografia ala demografia, baina Penintsulako eta Akitaniako beste toki batzuetan ez bezala, euskaldunek beretu zituzten zeltak eta ez alderantziz.

Euskarak irauteko arrazoi eragingarri bat hauxe izan zen: baskoiek ez zieten aurka egin erromatarrei. Dirudenez, hasiera batean baskoienak ez ziren lurralde batzuk, Jakerria, Aragoiko Bost Hiriak eta Errioxaren parte bat haien esku utzi zituzten Ebro ibarreko herrien oldartzearen ondoren, Kristo aurreko II. mendearen hasieran. Erromatarren kantabriarrekiko jarrera alderantzizkoa izan zen, erromatarrei aurka egin baitzieten eta horiek ia-ia akabatu egin baitzituzten.

Antonio Tovarren eta Koldo Mitxelenaren hipotesiaren arabera, euskararen eta latinaren arteko alde genetiko eta egiturazkoa onuragarria izan zen harentzat. Aitzitik, hizkuntza zeltak, latina bezala, indoeuropar jatorrikoak ziren eta berehala asimilatuak izan ziren. Hipotesi hori osorik ukatu gabe, esplikatzen beharko litzateke zergatik desagertu ziren erromatarren presiopean hizkuntza ez-indoeuropar batzuk, iberiera eta tartesiera, adibidez, goi mailako kultura garatua zutenak. Berritoren beraz, azalpen linguistikoak geografiarekin edo antolamendu ekonomiko eta sozialarekin konbinatu behar dira.

Bestaldetik, entzun ohi da kristautasuna berandu sartu zela Euskal Herrian. Kristautasuna, seguruenik, homogeneousazio kultural eta

Reasons for the Survival of Euskara

Luis Michelena used to say that the real mystery surrounding Euskara was not its origins, but its survival to the present day. It is, in effect, surprising that this language has subsisted in Basqueland, a crossroads which has always been in contact with other places and peoples, before and after the institutionalisation of the Camino de Santiago/Donjakue Bidea (Saint James' Way)—which crosses the territory both inland and along the coast—in the eleventh century. With some exceptions, Basque was a non-written language until the sixteenth century and it seems like both its institutions and its ruling classes did not value it especially.

The Celts colonised most of present-day Basqueland and left toponyms like *Deba* in Guipuzcoa and *Ultzama* in Navarre. Although we are not one hundred percent sure about some etymologies, it would appear that Basque borrowed words like *maite* ("beloved"), *mando* ("mule") and perhaps *izokin* ("salmon") come from them. We do not know why exactly, whether it was for geographical or demographic reasons, but unlike in the rest of the Iberian Peninsula and Aquitaine, Basques assimilated Celts and not the reverse.

One key circumstance behind the survival of Euskara is that the Vascones did not confront the Romans. It even seems like territories which they initially did not possess—such as Jaccetania and the Cinco Villas in present-day Aragon and part of La Rioja—were handed over to them after the revolt of the peoples in the Ebro Valley at the beginning of the second century BC. By contrast, the Cantabri, who resisted Roman rule, were practically exterminated.

Antonio Tovar and Luis Michelena defended the thesis that the genetic and structural distance between Basque and Latin was advantageous in this regard. On the contrary, the Celtic languages shared with Latin a common Indo-European origin and were quickly assimilated. Without refuting this idea completely, though, one would have to explain why other non-Indo-European languages such as Iberian and Tartessian (both having achieved quite advanced cultural forms) disappeared through Roman pressure. Thus, once more one must combine linguistic explanations with other reasons based on geography or social and economic organisation.

Elsewhere, it is often alleged that Christianity was introduced late into Basqueland. Clearly, Christianity was a vehicle for cultural and linguistic homogenisation, but it cannot be argued that the Basque territories were Christianised much later than other regions in Europe. Although not much later, perhaps initially Christianisation was less intense because the new doctrine expanded via cities and they were fewer in number and smaller in size on Basque soil. In reality, there were just three: *Pompaelo* (Pamplona/Iruñea), *Lapurдум* (Bayonne/Baiona) and *Veleia* (Iruña de Oca/Iruña Oka, in Alava).

Euskara should have been on the point of disappearing around the first few centuries AD, but the timely fall of the Roman Empire saved it from an extinction that seemed likely. The Vascones, who had got on reasonably well with the Romans, did not hesitate in fighting the Goths,

23. Augustin Chaho (1811-1858).

linguistikorako tresna bat izan zen, baina, egia esan, ezin dugu baieztatu Euskal Herria Europako beste herri batzuk baino berantago kristautu zela. Berantiarragoa izan ez bazen, agian, hasiera batean ez zen hain trinkoa izan, doktrina berria hirietatik abiatu zelako eta Euskal Herrian hiri gutxi, eta txikiak, zeudelako. Berez, hiru hiri aipatu ditzakegu soilik: *Pompaelo* (Iruñea), *Lapurdum* (Baiona) eta *Veleia* (Iruña Oka, Araban).

Euskarak desagertzeko zorian egon behar izan zuen gure aroko lehen mendeetan, baina Erromatar Enperadoreagoaren desagiteak, une egokian gertatuak, ziurtzat jo zitekeen heriotzatik libratu zuen. Baskoiek, erromatarrekin nahiko ongi konponduak zirenek, etengabe aurka egin zieten godoei, Iruñea kontrolatu zutenei. Frankoek beren izenezko nagusigoa ezarri zioten VI. mendetik aurrera *Wasconia* (Gaskoinia) iritziko zien lurraldeari.

Musulmanen inbasioarekin, konkistaturiko lurraldeetako kristau askok Penintsularen iparraldeko erresistentzia guneetan hartu zuten aterpe, batzuetan jatorrizko bizilagunak ordeztu zituztelarik. Godoak eta baskoiek gaizki konpondu ohi zirenez, Euskal Herrian kokatu ziren iheslariak agian gutxiago izan ziren antzinako Kantabrian kokatu zirenak baino.

Oso harrigarria da, euskarak latinari eta erromantzeari hamaika mailegu hartu badizkie ere (agian bere lexikoaren erdia, eratorpen atzizki asko barne), ia-ia ez dagoela germaniar hizkuntzen mailegurik. Ustezko salbuespen bat, baieztatuko balitz oso adierazgarria izanen litzatekeena, *gudu* da, *godo* hitzarekin loturik egon litekeena. Horrek *godo* eta frankoekiko harremanen urritasuna adieraz lezake. Esan den bezala, arabierazko maileguak gehiago dira, baina haietariko batzuk inguruko erromantzeen bidez sartu ziren euskararen.

Hurrengo puntuan ikusiko den moduan, eztabaidatzen ahal da noraino lagundu zion euskarari aduanen eta foru erakundeen iraupenak, XVIII. mendea arte Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan eta XIX. mendea arte Hego Euskal Herriko lauretan. Agian, herriaren pobrezia bera izan zen foruak baino lagungarriagoa, XIX. mende bukaerako industrializazioa arte, Euskal Herria emigrazio eremu bat izan zelako, ez emigrazio eremu bat, orduz geroztik bezala. Argi eta garbi dago, hala ere, historian zehar euskarak frogatu duela beste hizkuntza batzuen hitz eta egiturak beretzeko izugarrizko gaitasuna duela. Horrela izan ez balitz, duela mende batzuk desagertuko zen seguruenik, gaur egungo Espainia-Frantzietan duela bi mila urte hitz egiten ziren beste hizkuntzak bezala.

who controlled the city of Pamplona/Iruñea. The Franks then imposed their nominal authority in the territory that, in the sixth century, became known as *Wasconia* (Gascony).

With the Muslim invasion, many Christians from conquered territories took refuge in the north of the peninsula to the point of supplanting the region's primitive inhabitants. Because of the bad relations between Vascones and Goths, there were perhaps less refugees who settled in Basque territory than, for example, in ancient Cantabria.

It is striking that, unlike the multiple borrowings in Euskara from Latin and from Romance (making up conceivably half of its lexicon, including many derivational suffixes), borrowings from Germanic languages are practically inexistent. One possible exception, and very significant if confirmed, is the word *gudu* ("combat"), which could even be related to *godo* "Goth". This could indicate the precarious nature of relations with the Goths and the Franks. As has been noted, there are more borrowings from Arabic, although several of these were introduced via neighbouring Romance languages.

As will be addressed below, it is debatable to what extent having separate customs borders and *foral* institutions (from the traditional laws, called *fueros* in Spanish and *fors* or rather *coutumes* in French, which established institutional relations between the Basque territories and central authority, and codifying the scope of local authority), up to the eighteenth and nineteenth centuries respectively for the three provinces of North and the four of South, benefited Euskara. Perhaps, more than the *fueros* or *coutumes*, what contributed to its survival was the poverty of the country itself, which until late nineteenth-century industrialisation, was a focus more for emigration than the immigration that has occurred since. What does remain obvious is that the Basque language has demonstrated a remarkable ability to adapt words and structures from other languages. If this were not the case, it would have disappeared centuries ago, as eventually happened to all the other languages that existed in present-day Spain and France two thousand years ago.

Foruak eta euskara (XVI-XIX. mendeak): foru erakundeak eta apologistak

The 'Fueros/Coutumes' and Euskara (Sixteenth to Nineteenth Centuries): 'Foral' Institutions and Apologists



24. *Uscal-Herrico Gaset*a (1848). The first weekly newspaper published in Basque.

Erdi Aroan euskarazko testigantzak ez ziren sobera ugariak izan. Honako hauek dira agiri zaharrenak: Donemiliaga Kukulako monasterioko dokumentu baten bazterretan idatziriko bi esaldi labor eta ulergaitz (X-XI. mendeetakoak), Donemiliagako Goldeak biltzen dituen toki-izenen zerrenda (XI. mendekoa), eta testu batzuetan ageri diren hitz solteak (Aymeric Picaud errokes frantsesaren *Codex Calixtinus* delakoan, XII. mendean, edo Nafarroako Foru Orokorrean, XIII. mendean). Erdi Aro Beherean, lekukotasun horiek ugalduz joan ziren. Ezin zehaztu den garai batekoak, agian, XIV. eta XV. mendeetakoak, ahoz transmitituriko kantu epikoetako pasarteak dauzkagu. Gainera, beren interesagatik, Arnold von Harff Koloniako bidaiariak bilduriko hiztegi laburra nabarmena da. Von Harffek, 1496tik 1499ra bitarte, erromesaldi luze bat egin zuen. Erroma eta Jerusalem bisitatu zituen, besteak beste, eta Compostelarraino ailegatu zen. Euskal Herritik barna iragatean, bidaietako bere ohiturari eutsiz, *pascaysche spraich* edo euskal hizkuntzako hitzak idatzi zituen, alemanezko itzulpenarekin, adibidez,

24. *Uscal-Herrico Gaset*a (1848). Euskaraz argitaraturiko lehen astekaria.

The Middle Ages were not especially prodigious as regards testimonies about Euskara. The oldest documentation consists of two short difficult to understand phrases written in the margins of a document in the San Millán de la Cogolla monastery (tenth-eleventh centuries), some toponymic lists such as that collected in the *Reja de San Millán/Donemiliagako Goldea* document (eleventh century), and the odd words in various other texts such as the *Codex Calixtinus* by the French pilgrim Aymeric Picaud (twelfth century) or the *Fuero General de Navarra/Nafarroako Foru Orokorra* (thirteenth century). In the Late Middle Ages, however, more and more testimonies addressed the language. There are fragments of some epic songs transmitted orally of unknown precise date, although possibly originating in the fourteenth and fifteenth centuries. Moreover, some short vocabularies also stand out, such as that by the traveller Arnold von Harff of Cologne. He undertook a major pilgrimage from 1496 to 1499, visiting Rome, Jerusalem and even Santiago de Compostela. On passing through Basqueland, as he had done in other territories, he jotted down several words of what he termed *pascaysche spraich* ("Basque language"), and translated them into German, including *arduwa* (wijn) "wine", *gasta* (keyss), "cheese", and *schambat* (wat gilt dat) "how much (is that)?".

As regards political organisation, the Basque territories were incorporated into the Castilian and French crowns between the twelfth and seventeenth centuries, but maintaining their own institutions within each kingdom. These institutions were abolished in Labourd, Soule and Lower Navarre in 1789 after the outbreak of the French Revolution; and in 1876 in Alava, Guipuzcoa and Biscay after the Third Carlist War. By the terms of an 1841 law (later known as the *Ley Paccionada/Lege Hitzartua* or 'Agreed Law') Navarre lost its *Cortes* (*Gortek* in Basque) and its Deputation of the Kingdom, but retained its economic and financial autonomy.

In contrast to the Catalan *usatges*, written in Latin but soon translated into Catalan, the Basque *fueros* or *coutumes* were redacted in Navarrese Romance (Navarre), Castilian (Alava, Biscay and Guipuzcoa), Gascon (Soule and Lower Navarre) and French (Labourd, translated from Gascon). While Catalan was still used as an administrative language in the Crown of Aragon until the abolition of its institutions at the beginning of the eighteenth century, the use of Euskara by Basque institutions was very discrete, if not minimal.

Today we are used to writing in the same language in which we speak. However, this is a recent phenomenon that is mostly the result of nineteenth- and twentieth-century literacy campaigns. In early modern times it was more typical to have different spoken and written languages. For example, Latin was the administrative language of

arduwa (wijn) 'ardoa', *gasta* (keyss) 'gazta' edo *schambat* (wat gilt dat) 'zenbat (da)?'.

Antolamendu politikoari dagokionez, euskal herrialdeek Gaztelako eta Frantziako Koroekin bat egin zuten XII. mendetik XVII. mendera bitarte, baina bi monarkien barruan beren erakundeei eutsiz. Lapurdin, Zuberoan eta Baxenabarren, erakunde horiek 1789an ezeztatu ziren, Iraultza Frantsesa hasi berrian. 1876an, Hirugarren Karlistadaren ondoren, Arabakoak, Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak ezeztatu ziren. Gero «Hitzartua» iritzi zion 1841eko Legearen bidez, Nafarroak Gorteak eta Erresumako Diputazioa galdu zituen, baina bere autonomia mantendu zuen ekonomiari eta zerga bilketari dagokienez.

Kataluniako *usatge*-ak latinez idatzi ziren, baina laster katalanera itzuli ziren. Euskal Herriko foruak, ordea, Nafarroako erdarantz (Nafarroakoa), gaztelaniaz (Arabakoa, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa), gaskoiz (Zuberoakoa eta Baxenabarrekoa) eta frantsesez (Lapurdikoa, gaskoitik itzulirik) idatziak daude. Katalanak, XVIII. mendearen hasieran erakundeak ezeztatu zituzten arte, Aragoiko Koroako hizkuntza administratiboa izaten segitu bazuen ere, euskal erakundeek gutxi erabili zuten euskara, ia inoiz ez ez esateagatik.

Gaur egun, ohituak gaude hitz egiten dugun hizkuntza berean idazten. Hori, baina, fenomeno berri bat da, XIX. eta XX. mendeetako alfabetatze kanpaineekin lotua dagoena. Antzinako Erregimenean, oso maiz, hitz egiten zen hizkuntza eta idazten zena ez ziren bat. Adibidez, latina Eliza Katolikoko eta Erdi Aroaren hasieran sorturiko lehen estaternamuinetako hizkuntza administratiboa zen, oso gutxi baziren ere aise mintzatzeko gai. Erdi Aro Beheretik aurrera, erromantzeak latinaren tokia hartuz joan ziren. Halaxe gertatu zen, adibidez, gaztelaniarekin eta frantsesarekin. Joana Albretekoa Baxenabarren euskararen erabilera instituzionalizatzen saiatu bazen ere, latinarekiko alde genetiko eta egiturazkoa agian traba bat izan zen, euskarari inguruko hizkuntzen toki bera hartzea eragotzi ziona. Klase aberatsen utzikeria orokorra haren patuarekiko ere eragingarria izan zen.

Zehazki, XVI. eta XVII. mendeetan, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Batzar Nagusietako ahaldun izateko gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakin beharra zegoen nahitaez, euskaldun analfabetoek osaturiko gizarte batean (egia esan, ezbaian jartzen ahal da xedapen horiek zorrotz bete ote ziren inoiz, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz). Hobeki ikertzea merezi badu ere, badirudi Baxenabarreko Estatuak gaskoia erabili zutela 1620 arte eta frantsesa orduz gerotzik, eta deialdietan gaztelania erabili zela 1772 arte. Alegia, inoiz ez euskara. Baxenabarreko Estatu horiek Dominique Bidegarairi uko egin zioten diru-laguntza bere latin, frantses, euskara eta gaztelaniako hiztegi laukoitza argitaratzeko, 1675 eta 1676an. Lapurdiko Biltzarrek, XVIII. mendearen hasieran, ez zion laguntzarik eman nahi izan Joanes Etxeberri Sarakoari euskaratik abiatu prestaturik zeukan latin-ikasbiderako. Gaztelaniaz jakin beharra Gorteetan eta Batzar Nagusietan populu xehearen partaidetza eragozteko modu bat izan zen, populu xeheak, maiz, euskaraz besterik ez zuelako egiten. Hala ere, bitxia da, euskaldun elebakarrekiko bereizkeria indarrean zegoen bitartean, kargu publikoetan jardutea eragotzi baitzitzaien, oso literatura indartsu bat sortu zela (gehienbat gaztelaniaz, baina frantsesez ere bai), euskararen berezko balioak etengabe goraiatzeko.

the Catholic Church and the first embryonic states emerging at the beginning of the Middle Ages, yet few people were able to speak it fluently. From the Late Middle Ages onwards, Romance languages gradually took over from Latin, as in the cases, for example, of Castilian and French. Despite the attempts of Jeanne d'Albret to institutionalise the use of Euskara in Lower Navarre, its genetic and structural distance from Latin possibly impeded Basque from occupying the same position as its neighbouring languages. The widespread indifference of the wealthy classes regarding its fate must also have been crucial in this regard.

Specifically, in the sixteenth and seventeenth centuries the General Assemblies (*Juntas Generales* in Spanish, *Batzar Nagusiak* in Basque) of Alava, Guipuzcoa and Biscay required their members to know how to read and write in Castilian in a predominantly illiterate Basque-speaking society (in reality, it is doubtful whether such resolutions were adhered to so strictly, given the sociolinguistic situation of the country). Although this is an aspect that would need further research, it seems that the Estates of Lower Navarre used Gascon until 1620 and French from then on, and that in their notifications of the meetings Castilian was used until 1772; in other words, never Euskara. The same Estates of Lower Navarre refused to fund Dominique Bidegaray/Bidegarai's multilingual dictionary (Latin, French, Basque and Castilian) in 1675 and 1676. And at the beginning of the eighteenth century, the Assembly (*Bilzar*) of Labourd refused to fund a method for learning Latin from Euskara by Joannes Etxeberri/Joanes Etxeberri from Sare/Sara. The requirement of the Castilian language in the Cortes and General Assemblies was a means of excluding the participation of the popular classes, who were generally monolingual Basque-speakers. Curiously, though, at the same time as there was discrimination against monolingual Basque-speakers, impeding them from holding public office, a significant literature emerged (mostly written in Castilian but also in French) praising the intrinsic qualities of Basque. Most of the Basque-language apologists between the sixteenth and nineteenth centuries were not really interested in maintaining, or even less extending, Basque. Rather, the language was used as a means of defending the distinct nature of Basque institutions and, indirectly, the privileges of the class which was the main beneficiary of this.

Amongst the most prominent apologists, some of which contributed to Basque studies to a high degree, the Biscayan Andrés de Poza (1530-1595) and the Guipuzcoan Esteban de Garibay/Garibai (1533-1599) contended that Euskara was the common language of Spain before the Roman invasion. Another Guipuzcoan, Manuel de Larramendi (1690-1766), author of a Basque grammar and of a trilingual dictionary (Spanish, Basque, and Latin) which had a great influence in his time, created several neologisms in Basque (which he later did not use very much) to distinguish it as much as possible from Castilian, initiating a purist tradition that survives to this day. Larramendi himself, together with the Biscayan Pedro Pablo de Astarloa (1752-1806) and other authors of the era, argued more or less explicitly that Basque was the language of Adam and Eve, the angels and God himself. All these authors contributed to creating a Basque identity that was differentiated from and even opposed to a Spanish or French one. For example, Astarloa was a direct influence on the linguistic ideas of Sabino Arana Goiri (1865-1903), the founder of the Basque Nationalist Party.



25. Sabino Arana (1865-1903). Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzailea.
26. Lapurdik Frantziako Estatu Orokorretara igorritako diputatuendako jarraibideak, euskaraz eta frantsesez (1789).


zituen. XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko apologista gehienek ez zuten egiazko interesik euskararen iraupenean eta are gutxiago haren zabalpenean, baina euskarak aitzakiatako balio zien Euskal Herriko erakunde bereziak eta, zeharka, erakunde horien onura gehiena hartzen zuen klasearen pribilegioak defenditzeko.

Apologista entzutetsuenen artean (haietako zenbaitek euskal ikerketei ekarpen nabarmena egin zieten), Andres de Poza (1530-1595) bizkaitarra eta Esteban Garibai (1533-1599) gipuzkoarra aipatu behar dira. Biek, euskara, erromatarrak baino lehen, Espainia osoan mintzatzen zelako hipotesiaren alde egin zuten. Manuel Larramendik (1690-1766), hori ere gipuzkoarra, euskal gramatika baten eta bere garaian eragin handia izan zuen gaztelania, euskara eta latineko hiztegi hirukoitz baten egileak, euskara gaztelaniatik ahalik eta gehien bereizteko neologismo asko sortu zituen (gero erabili ohi ez zituenak) eta horrela gaur egun arte iraun duen tradizio garbizale bati ekin zion. Larramendik berak, Pedro

25. Sabino Arana (1865-1903). The founder of the Basque Nationalist Party.

26. Instructions for deputies from Labour at the Estates General of France in Basque and French (1789).

One should also mention some exceptions to the institutional abandonment of Euskara. We have already alluded to the Queen of Lower Navarre, the protestant Jeanne d'Albret, who in 1571 ordered a translation of the New Testament into the language of the majority of her subjects. This was undertaken by Joannes Leizarraga from Labourd. The failure of Protestantism (which tried to cultivate vernacular languages) to take root and the persistence of Catholicism (which continued to function in Latin) may have cut off the diffusion of Basque as an administrative language. We will never know. Likewise, there are documents showing that the *Bilçar* of Labourd—which represented a nascent Basque-speaking and writing bourgeoisie—used to function in Euskara. It is, then, no coincidence that the best Basque-language writers of this time came from this area. Yet this educated class in Labourd, whether as the result of the loss of Newfoundland, whether as a result of the extinction of whales in the Bay of Biscay, or whether as a result of the French nationalisation process itself, was already in decline by 1789. Meanwhile, from the early nineteenth century on, Basque was used in both oral and written form in the General Assembly of Biscay, in contrast to the ruling of previous centuries. And on the eve of the abolition of the *fueros* in 1876 the Guipuzcoan institutions—often controlled, like their Biscayan counterparts, by Carlists—also showed some interest in cultivating the Basque language. Indeed, they even made knowledge of Basque a condition for gaining public employment.



Pablo Astarloa (1752-1806) bizkaitarrak eta garai hartako beste idazle batzuek zeharka edo zuzenean adierazi zuten euskara Adan eta Ebaren, aingeruen eta Jainkoaren berberaren hizkuntza zela. Egile horiek guztiek lagundu zuten euskal nortasun berezi bat sortzen, nortasun espainol eta frantsesetik berezia eta, batzuetan, horiei aurka egiten ziena. Izan ere, Astarloak zuzeneko eragina izan zuen Sabino Arana Goiri (1865-1903) Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzailearen ideia linguistikoetan.

Erakundeen euskararekiko utzikeriaren salbuespen batzuk aipatzea bidezkoa da. Joana Albretekoaz, Baxenabarreko erregina protestanteaz, mintzatu gara jadanik. 1571n Testamentu Berria bere manupeko gehienek hizkuntzara itzultzeko agindua eman zuen. Joanes Leizarraga lapurtarrak ondu zuen itzulpen hori. Protestantismoak, herri hizkuntzak lantzen saiatu zenak, ez zuen bide egin, katolizismoa, latinaren alde apustu egiten segitzen zuena, gailendu baitzitzaion. Horrek, beharbada, eten egin zuen euskara hizkuntza administratiboa bihurtzeko bidea. Ez dugu inoiz jakinen. Halaber, baditugu dokumentu batzuk, Lapurdiko Biltzarra, euskaraz hitz egin eta idazten zuen burgesia txiki bat ordeztzen zuena, euskaraz aritu ohi zela frogatzen dutenak. Ez da kasualitatea, garai hartako euskarazko idazlerik hoberenak herrialde horretakoak izatea. Baina, lapurtar klase ikasi hori, Ternuaren galeragatik, balea Bizkaiko Golkon akabatzeagatik edo frantses nazionalizazioagatik beragatik, maldan behera zihoan 1789rako. Bestaldetik, badakigu, XIX. mendearen hasieratik aurrera, Bizkaiko Batzar Nagusietan euskara hitz egin eta idazten zela, aurreko mendeetako arauen kontra. Foruak ezeztatu (1876) baino lehentxeago, Gipuzkoako erakundeek euskararekiko interesa ere sumatzen dugu. Gipuzkoako erakundeek, Bizkaikoak bezala maiz karlistek kontrolatuek, euskaraz jakitea eskatu zuten zenbait lanpostu publikotarako.

Urte horiek baino lehen, euskararen erabilera administratiboa udal batzuetara eta Estatuko xedapenen itzulpenetara (adibidez, Ipar Euskal Herrian, agintari iraultzaile frantsesen aginduetara) mugaturik egon zen. Dozenaka euskarazko udal dokumentu ezagutzen ditugu, baina, foru erakundeek, hots, Gorteek, Batzarrek eta Diputazioek sortuak askoz gutxiago dira. Antso Jakituna erregeren garaiko dokumentu batean (1167koan), euskarari *lingua Navarrorum* deritzo, baina Nafarroako Erresumako Gorteen edo Diputazioaren ofizio bakar bat ere ez dago hizkuntza horretan idatzirik. Gaztelaren aldetiko anexoak (1515) ez zion funtsezko aldaketarik ekarri euskararen egoerari Nafarroan.

XVIII. mendetik aurrera, euskararen erabilera oztopatzeko Espainiako Koroaren lehen saioak dokumentatzen dira. Adibidez, 1766an, Arandako kondeak Kardaberazek Loiolako Inazioren bizitzari buruz idatzirik euskarazko lan bat debekatu zuen. Euskarazko literaturako lanik hoberenetako bat, *Peru Abarka*, Juan Antonio Mogelek 1802an idatzia, ezin izan zen 1881 arte argitaratu. XVIII. eta XIX. mendeetan hain zuzen ere nabarmendu da euskararen galera, lehenago Araban eta berehala Nafarroan. Beste bost probintzietan, aldiz, euskarak ez zuen lurralderik galdu XX. mendea arte, hiri batzuetan izan ezik.

Before this time the administrative use of Euskara was limited to some town halls and translations of resolutions by the central authorities, such as the orders of the French revolutionary authorities in the northern part of the country, for example. There are dozens of municipal documents in Basque, but those of the *foral* institutions (*Cortes*, Assemblies and Deputations) are much less in number. In 1167, during the reign of Sancho the Wise, Basque is termed (though only once) *lingua Navarrorum*, yet not one document by the *Cortes* or the Deputation of the Kingdom of Navarre was written in this language. Therefore its annexation by Castile in 1515 did not imply any substantial change in the status of Euskara in Navarre.

From the eighteenth century on, there is documented evidence of the first attempts by the Spanish Crown to hinder the use of the Basque language. In 1766, for example, the Count of Aranda banned a work in Euskara by Cardaveraz/Kardaberaz on the life of Ignatius of Loyola. And one of the main works in Basque-language literature, *Peru Abarka* by Juan Antonio Moguel, written in 1802, could not be published until 1881. It was, precisely, in the eighteenth and nineteenth centuries when it became obvious that the Basque language was losing ground, firstly in Alava and then in Navarre. In the other five provinces, however, there is no evidence of territorial losses until the twentieth century, with the exception of some urban areas.

Euskal Pizkundea

XIX. mendearen bigarren erdian, Europaren hego-mendebalean, berezko hizkuntza Estatukoa ez beste daukaten lurraldeetan, mugimendu literario bana sortu ziren, gehiegikeria eta nahikeria handi samarraz «birjaiotzeak» deitu izan direnak. Honako hauek dira: *Felibritge* Okzitanian, *Renaixença* Herrialde Katalanetan, *Rexurdimento* Galizian eta *Pizkundea* Euskal Herrian. Baten batek huts egin zuen bere mintzaira berpizteko ahaleginetan. Eta denak Espainia eta Frantziaren eraikuntza nazionalaren prozesuen barruan gertatu ziren, ez haien kontra.

«Euskal Pizkundea» Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foruen ezeztatzetik (1876tik) Espainiako azken Gerra Zibilaren hastapenera (1936ra) bitarte kokatu ohi da. Kontzeptua bera eztabaidagarria den arren, zentzu handiagoa izan lezake Pizkundearen hasiera 1851ean jartzeak. Izan ere, urte horretan, Anton Abadia-Ürrüstoi zuberotar mezenasak sustaturik, «Koplarien Guduak» edo Lore Jokoak ospatzen hasi ziren, lehenik Lapurdin, gero beste euskal probintzietan. Jokoei esker, euskarak nolabaiteko tokia irabazi zuen plazan. 1879tik aitzina mugaz bi aldeetan gertatu ziren. Abadia-Ürrüstoik 1851n Ipar Euskal Herrian abiarazi zituen Lore Jokoak euskara hutsezkoak ziren eta halakoxeak izaten segitu zuten Hego Euskal Herrian 1879tik aitzina. Hala ere, Pirinioez hegoaldean beste lehiaketa batzuk antolatu ziren. Horiek, Donostiako Udalarenak izan ezik, elebidunak izaten ziren, baita euskaldun elebakarrak nagusi ziren herrietan ere.

Pizkundek, berez, bi fenomeno diferente biltzen ditu bere baitan, elkarrekin zerikusi handirik ez dutenak. Alde batetik, Lore Jokoen inguruan sorturiko euskarazko literatura. Koplarien Guduak, ustez apolitikoak ziren, baina, euskal gizartearen oso ikuspegi tradizional eta konfesionala ematen zuten, errepublikanoen erreakzioa piztu zutelarik, beren jokoak antolatu baitzituzten. Bestetik, literatura foruzale berria, gehienbat gaztelaniaz idatzia, agitazio politikorako borondate gardena ezkututzen ez zuena, nahiz eta lerratuago egon moderantismora (liberalismo kontserbadorera) karlismora baino. Tradizio horietako lehena Ipar Euskal Herrian ageri da bereziki. Bigarrena, Hego Euskal Herrian. Lehen abertzaletasuna bigarren tradizioaren oinordekoa da. Hego Euskal Herriko abertzaletasun politikoak eta Ipar Euskal Herriko euskaltzaletasun apolitikoak 1960ko hamarkadan bat egin zuten, eta neurri batean bakarrik.

Lore Jokoen aurrekari urruna Okzitanian datza, non 1324az geroztik jazo baitziren, bertako hizkuntzan hasieran, frantsesez 1519az geroztik. Antzeko ekitaldiak Espainia-Frantzietako beste hizkuntza batzuetan gertatu ziren, ez bakarrik eremu urrikoetan: Espainian «berrezarri» ziren lehen Lore Jokoak Madrilgoak izan ziren, 1841ean. XIX. mendean Andaluzian, Murtzian, Gaztela Zaharrean, Aragoian, Asturietan eta Extremaduran behintzat izan ziren Lore Jokoak, denak gaztelania hutsez (1883an Oviedokoak izan ezik). Katalunian 1859tik aitzina gertatu ziren (katalan hutsez), Galizian 1861etik aitzina (galegoz eta gaztelaniaz) eta Valentzian 1879tik aitzina (katalanez eta gaztelaniaz). Okzitanian, 1862tik aitzina, berezko mintzairan izan ziren berrero. XX. mendean Espainiako ia eskualde guztietara zabaldu ziren Lore Jokoak eta,

'Euskal Pizkundea'

In the second half of the nineteenth century, in different areas of South West Europe in which there was a language that was distinct to that of the state in which they were located, literary movements emerged that, with a certain degree of voluntarism and exaggeration, have been termed 'renaissances'. These were the *Felibritge* in Occitania, the *Renaixença* in Catalan-speaking territories, the *Rexurdimento* in Galicia and the *Pizkundea* in Basqueland. Some failed in their attempt at language revitalisation. And all of them took place within the process of the national construction of Spain and France, not against them.

The *Pizkunde* or 'Basque Renaissance' is usually located historically between the so-called *foral* abolition in Alava, Guipuzcoa and Biscay (1876) and the start of the Spanish Civil War (1936). In spite of the objections such a concept may incite, it would make more sense to date its beginning to 1851. This was the year in which, on the initiative of the Souletin patron Antoine d'Abbadie d'Arrast/Anton Abadia-Ürrüstoi, the first Floral Games (*Koplarien Guduak*, literally "Poets' Combats") were held, initially in Labourd and then in the rest of the Basque provinces. Thanks to the games, the Basque language gained a greater presence in the public sphere. From 1879 on, they would take place on both sides of the Franco-Spanish border. The Floral Games that Abbadie had organised in French Basqueland in 1851 were exclusively in Basque and they continued thus in Spanish Basqueland from 1879 on. However, south of the Pyrenees there were other competitions that, with the exception of those organised by the City Council of San Sebastián/Donostia, used to combine Basque and Spanish, even in areas with a high percentage of monolingual Basque-speakers.

The *Pizkunde* encompassed in reality two different phenomena that had little in common with one another. On the one hand, a Basque-language literature emerged out of the Floral Games which was theoretically apolitical, yet this did not prevent it from revealing a very traditional and confessional vision of Basque society, to the point of provoking the reaction of republicans, who in turn organised their own alternative games. And on the other, a mostly Castilian-language pro-*foral* literature emerged which was clearly political in nature although more geared towards a moderate conservative liberalism rather than Carlism. The first of these traditions was most evident in French Basqueland, while the second predominated in Spanish Basqueland. Early Basque nationalism is a descendant of this second tradition. The fusion of the political nationalism in the South and the apolitical culturalism in the North only occurred, and then only partially, in the 1960s.

The remote precedent of the Floral Games dated back to Occitania, where they had been held since 1324, first in the autochthonous language and, from 1519 on, in French. This was a common phenomenon amongst several languages in Spain and France and not just minority tongues: the first games that were "recovered" in Spain took place in Madrid in 1841. During the nineteenth century, there were Floral Games in at least Andalusia, Murcia, Old Castile, Aragon, Asturias and Extremadura, all exclusively in Spanish (except those in Oviedo, Asturias, in 1883). They began in Catalonia in 1859 (and were monolingual, in Catalan), in Galicia in 1861 (in Galician and Spanish) and in Valencia in 1879 (in Catalan and Spanish). In 1862, they were once more held

Languedoceko Tolosako lehen jokoan seigarren mendeurrena zela medio (1924), baita Frantziakoetara ere. Abadia-Ürrüstoi Euskal Herrian jokoak antolatzen hasi baino lehen, beste zuberotar batek, Agosti Xahok, *Uscal-Herrico Gaseta*-ren bi ale argitaratuak zituen, 1848an, lehen euskarazko aldizkaria sortzeko ahaleginetan. Azaleko begiratu batek bide eman lezake pentsatzeko hizkuntza berreskuratzeko prozesua bateratsu gertatu zela Euskal Herrian eta Katalunian, adibidez. Efektu optiko bat besterik ez litzateke. Lore Jokoen katalanaren estatusaren jasotzean eragin nabarmena izan bazuten ere, euskararenean izanikoa hutsaren hurrengoia izan zen, Euskal Herriko Lore Jokoen folklore hutsaren adibideak izaten zirelako eta, euskalkiekin tematurik zeudenez, ez zutelako akuilutako balio izan kalitateko literatura sortzeko (salbuespen nabarmenena Joan-Baptista Elizanburu lapurtarra izan zen), ez eta hizkuntza literario baten oinarria ezartzeko ere. Erraza da diferentzia hau ulertzen. XIX. mendean katalanezko Lore Jokoen egoitzak Bartzelona eta Valentzia izan ziren. Euskarazko jokoen egoitza nagusiak, Urruña eta Sara, Lapurdin, ikuspegi demografiko batetik ezin dira ez eta hurrik eman ere haiekin konparatu. *Jocs Florals* direlakoetan hirietako klaseak eragingarriak izan ziren. Koplarien Guduek, aldiz, indartu egin zuten euskara eta baserria lotzen zituen irudia eta inplizituki adierazi euskarak ez zuela bizitza modernorako balio. Hala ere, Koplarien Guduei esker Louis-Lucien Bonaparteren ortografia Euskal Herri osoan zabaldu zen eta estatuz gaindiko euskaldun kontzientzia piztu zen, euskararen oinarritua, lehenbizikoz Donibane Lohizuneko Koplarien Guduetan, 1892an, dokumentatzen den *Zazpiak Bat* goiburuaren inguruan.

Hego Euskal Herriko literatura foruzale berria eta nazionalista, horren ondorengoia dena, biak gehienbat gaztelaniaz idatziak, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako eta XIX. mendearen lehen erdiko euskararen aldeko tradizio apologetikoaren jarraipenak dira, ez euskarazko literatura jatorrarenak (Sabino Aranak, nazionalismo politikokoaren sortzaileak, ez zuen ezagutzen ere Axular, XX. mendea arte izan zen idazlerik hoberena, eta hasiera batean Koplarien Guduen kontra zegoen). Mugimendu horretako egileek, gehienak oso kaxkarrak baziren ere, lagundu egin zuten Euskal Herrian nortasun berezi bat zabaltzen, azken buruan, euskara berraurkitu eta lantzeko balioko zuena, bereziki XX. mendeko hirugarren hamarkadatik aurrera, Primo de Riveraren diktaduran eta Espainiako Bigarren Errepublikan, hain zuzen ere.

la lege historiko bat da nazionalismo politikoa lehenagoko nazionalismo kultural batetik abiatzea. Halaxe gertatu zen, adibidez, Katalunian eta Galizian. Euskal Herrian, ordea, Koplarien Guduen berezko oinordekoak, Euskaltzaleen Biltzarrak (1902), ez zuen inolako eraginik izan gizartean, Hego Euskal Herrikoan behintzat. Sabindar nazionalismo politikokoaren hedapena nazionalismo kultural hutsak Hego Euskal Herrikoan izan zuen porrotaren arrazoietako bat da. Horregatik, lau hegotar herrialdeetan, aldarrikapen kulturalak, neurri handi batean, aldarrikapen politikoen ondorengoak dira eta, beste neurri handi batean ere, horien menpekoak. Hori hala gertatu zen, nazionalismo politikoa erdaldunek sortu zutelako, XIX. mendearen bukaeran. Euskaldunak geroago abertzaletu ziren tropelka. Abertzaletasunak proposaturiko hizkuntza eredu bera ezinezkoa zen haren garbizalekeriagatik. 1960ko hamarkada arte ez zen egiazko euskaratik eta tradizio literariotik hurbilago egon zen beste eredu bat zabaldu.

in the native language of Occitania. In the twentieth century, Floral Games were held throughout practically all the regions of Spain and, on the occasion of sixth centenary of the first games in Toulouse (1924), also throughout those of France. Even before Abbadie organised the first games in Basqueland, another Souletin, Augustin Chaho/Agosti Xaho, had in 1848 published two issues of *Uscal-Herrico Gaseta*, the first attempt at a newspaper in the Basque language. It might seem like the process of linguistic recovery was similar in Basqueland and Catalonia, but this would be a mirage. If the Floral Games were not at all meaningless in raising the status of the Catalan language, they had almost no influence in Euskara whatsoever. This was because the Basque version was reduced to its most folkloric dimension and it was obsessed with dialects; both of which did little to stimulate the establishment of a quality literature (the most notable exception being the work of Jean-Baptiste Elissamburu/Joan-Baptista Elizanburu, from Labourd), nor even to create the rudiments of a common literary language. There is a simple explanation for this difference. One only need compare the demographic weight of Barcelona and Valencia, the venues for the games in Catalan in the nineteenth century, and Urguñe/Urruña and Sare/Sara, in Labourd, the main venues for the games in Basque. The urban classes participated decisively in the *Jocs Florals*. The *Koplarien Guduek*, however, accentuated the identification between the language and the rural world, so that, implicitly, it was implied that it was not fit for modern life. Nevertheless, one should acknowledge that the *Koplarien Guduek* contributed to disseminating throughout Basqueland the orthography of Louis-Lucien Bonaparte and that they laid the foundations of a supra-state Basque awareness, based on the language, which was represented in the slogan *Zazpiak Bat* ("the seven [Basque provinces] are one"), documented for the first time in the games of Saint-Jean-de-Luz/Donibane Lohizune in 1892.

In Spanish Basqueland, the *pro-foral* literature and its nationalist counterpart which followed, both written mostly in Castilian, continued the pro-Basque language apologetic tradition between the sixteenth and mid nineteenth centuries. They do not represent genuine Basque-language literature (Sabino Arana, the founder of political nationalism, was unaware of Axular, the best writer until the modern era, and, initially, was opposed to the Floral Games). Despite the widespread mediocrity of the authors in this current, they contributed to diffusing the notion of a differentiated identity in the country. Later, this would serve as a stimulus for the rediscovery and cultivation of Euskara, especially from the 1920s onwards, coinciding with the dictatorship of Primo de Rivera and the Second Spanish Republic.

It is almost a historical law that political nationalism stems from a prior cultural nationalism. This was the case, for example, in Catalonia and Galicia. In Basqueland, however, the natural heir of the Floral Games, the *Euskaltzaleen Biltzarra* (Association of Bascophiles, 1902) was scarcely influential in Basque society, at least in the Spanish part. The spread of Arana's political nationalism is one factor explaining the failure of exclusively cultural nationalism in southern Basqueland. For this same reason, in the four provinces there, cultural demands came in great measure after political demands and were to a large extent subordinate to them. This was a result of the fact that Basque political nationalism was created by Castilian-speakers at the end of the nineteenth century and only later attracted Basque-speakers en masse. The language model itself proposed by political nationalism was not viable because of its extreme purism. Until the 1960s, no other model closer to the real situation of Euskara and its literary tradition was formulated.

XX. eta XXI. mendeak

Frantziaren eta Espainiaren eraikuntza nazionalen prozesuek baldintzatu dituzte euskararen bizia eta gaztelania eta frantsesarekiko harremanak azken bi mendeetan. Haien aurka, beste nazio bat gorpuzteko saioa izan da: euskal nazioa, hain zuzen ere. Berezko hizkuntzaren egitekoa anbiguo samarra da abertzaletasunean. Izan ere, diskurtso teorikoa handi-mandia bada ere, errealitate soziolinguistikoak behartzen du askoz pragmatikoagoa den jarrera bat hartzera.

Honaino ailegaturik, Frantziaren eta Espainiaren nazionalizazio prozesuen artean eta, beraz, Euskal Herriaren bi aldeetan artean, dagoen funtsezko diferentzia aipatu behar da. Frantzia iraultza arrakastatsu baten obra da. Hamarkada askotan, aurrerakoia eta frantsesa sinonimoak izan ziren. Ipar euskaldunen nortasunak, erakunderik gabe, kutsu klerikal eta abarkadun bat hartu zuen XIX. mendean, azken buruan, haren iraupenerako bererako oso kaltegarria izan dena. Hego Euskal Herrian ere gertatu zen identifikazio bat kleroaren eta euskalduntasunaren artean (karlismoa besterik ez da gogoratu behar, mende eta erdiz euskaldunen bizitza baldintzatu zuena), baina Gerra Zibilak eta horren ondorengo diktadurak aukera eman zioten madarikazio hori hausteko eta euskal nortasuna frankismoaren kontrako erresistentziaren eragile bat bezala aurkezteko. Ipar Euskal Herrian ez bezala, Hego Euskal Herrian aurrerakoia eta euskalduna sinonimoak izan ziren hirurogeiko hamarkadatik aurrera, orduantxe sortu baitzen ezkerreko abertzaletasuna.

Nazionalismo frantsesa eta espainola 1789ko iraultzaren oinordekoak dira (gehiago hura hau baino) eta «nazio bat, hizkuntza bat» dogma praktikara eramaten saiatu ziren. Euskal nazionalismo politikoa, neurri batean, Estatu espainol zentralizatuak buruturiko homogeneizazio instituzional eta kulturalaren kontrako erreakzio bat da eta oso berandu kokatu zen Ipar Euskal Herrian, gutxiengo txiki batean, gainera.

Egia esan, Iraultza Frantsesa homogeneizazio linguistikoaren prozesu luzean beste urrats bat izan zen. XVI. mendean hasita (Villers-Cotterêts-eko Ordenantza, 1539), Lehen Mundu Gerran indartu eta azken hamarkadetako industrializazioarekin (edo, hobe, turistifikazioarekin) bukatu zen. Ipar Euskal Herrian, II. urteko berolisaren 2ko (1794ko uztailaren 20ko) Dekretuak (frantsesa ez beste hizkuntza guztiak debekatu zituenak) baino askoz eragin handiagoa izan zuten Ferryk eta Gobletek 6 urtetik 13 urtera bitarteko haurrentzat eskola nahitaezko, doako, laiko eta, gehienbat, frantsesezkoa sortzeko bultzaturiko legeak (1881-1886).

Hego Euskal Herrian, alfabetatzea (gaztelaniaz) klase aberatsentzat erreserbatutako pribilegio bat izan zen hasiera batean, klase horiek baitziren sortzen ari zen hezkuntza sisteman sartzeko aukera zuten bakarrak. XVIII. mendetik aurrera euskararen erabilera eratzunaren bidez zigortu izan da eskoletan (euskaraz hitz egiten harrapatzen zuten ikaslea eratzun estigmatizatzaile bat eramatera behartzen zuten). 1969an oraindik Nafarroan erabiltzen zen eratzuna. Moyano legeak (1857tik 1970era bitarte indarrean egon zenak) nahitaezko lehen hezkuntza eta gaztelaniazko gramatikaren irakaskuntza ezarri zituen Espainia osoan. Baina, ordurako, Nafarroako erakundeek hamarkadak eginak zituzten gaztelaniazko nahitaezko irakaskuntza bultzatzen.

27. Euskaltzaindiaren zenbait sortzaile: Piarres Broussain, Luis Eleizalde, José Agerre, Resurrección María Azkue, Julio Urkixo, Pierre Lhande eta Txomin Agirre.


The Twentieth and Twenty-First Centuries

The state of Euskara and its relationship with Castilian and French in the last two centuries has been conditioned by the national construction processes of France and Spain, against which there have been attempts to articulate an alternative Basque nation. The role of prioritising language in Basque political nationalism has been quite ambiguous because it has varied its discourse between very ambitious theory and the sociolinguistic reality. This has obliged it to adopt a more pragmatic attitude.

At this point, we should mention a fundamental difference in the nationalisation processes of France and Spain, and therefore between the two parts of Basqueland. France is the result of a successful revolution. For decades “progressive” and “French” were synonyms. In the nineteenth century and lacking its own institutions, French-Basque identity embraced a clerical and rural dimension that ultimately proved fatal for its own survival. In Spanish Basqueland there was also a link between clericalism and Basque culture (one only need think of Carlism, which shaped the life of the country for a century and a half). However, the Spanish Civil War and the subsequent dictatorship offered the chance to break this curse by presenting Basque identity as an element of resistance to Franco. In contrast to events in the French part of the country, in southern Basqueland “progressive” and “Basque” were synonymous from the 1960s on, coinciding with the emergence of a left-wing form of nationalism.

French and Spanish nationalism, both heirs of the 1789 French Revolution (although the former more than the latter) attempted to apply the dogma “one nation, one language”. Basque political nationalism was, to some extent, a reaction against the institutional and cultural homogenisation practiced by the centralised Spanish state and only later

27. Some of the founders of Euskaltzaindia, the Academy of the Basque Language: Pierre Broussain, Luis Eleizalde, José Agerre, Resurrección María de Azkue, Julio de Urquijo, Pierre Lhande and Txomin Agirre.



Hala ere, erlatibizatu egin behar da hezkuntza sistemak euskararen ahultzean izaniko eragina. 1860an, Hego Euskal Herriko bizilagunen ehuneko 63 analfabetoak ziren eta 1930ean ehuneko 27 ziren oraindik. Horrek frogatzen du sistemak toki guztietatik huts egiten zuela. Estatuaren ezgaitasunak berak esplikatzen du euskal herritar askoren eskolatzerik eza. Euskararen galera erlatiboan, eskola baino eragingarriagoak izan ziren agian, alde batetik, komunikazioen hobekuntza, mugikortasuna erraztu zuena (Espainiako beste eskualde batzuetarako, Ameriketarako eta Filipinetarako emigrazioa eta erdaldun askoren immigrazioa) eta, bestetik, nahitaezko soldadutza, urte batzuk iraun ohi zuena. Antzinako Erregimenean, gizartearen estamentu-egiturak berak lagundua zion euskararen iraupenari, nahiz eta beti gaztelaniaren azpitik, egoera erabat diglosiko batean. Mentalitate burgesak bere duen diskurtso berdintzailea agertzean, gaztelania/euskara bereizketak bere zentzua galdu zuen toki askotan eta horrek kalte egin zion hizkuntzari.

1914an, Kataluniako Mankomunitatea osatu zen. Lehenbizikoz, 1833an probintziak behin betikoz sortu zirenez geroztik, Estatu espainolak Bartzelona, Tarragona, Lleida eta Gironaren arteko loturak onartu zituen. 1917an, Arabako eta, bereziki, Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioek



28. Elbira Zipitria
(1906-1982).

28. Elbira Zipitria
(1906-1982).

and in much more reduced form did it gain any foothold in the French part of the country.

In reality, the French Revolution was just one more episode in a long process of linguistic homogenisation. Beginning in the sixteenth century (Villers-Cotterêts Ordinance, 1539), it intensified during the First World War and culminated with industrialisation (or rather the emergence of a tertiary service economy) in recent decades. In northern Basqueland the Decree of 2 Thermidor, Year II (20 July 1794) banned all non-French languages; but more important still were the laws passed by Jules Ferry and René Goblet between 1881 and 1886 which created mandatory, free, secular and, above all, French-language primary education for children between six and thirteen years of age.

In southern Basqueland literacy (in Castilian) was in principle a privilege reserved for the wealthy classes – the only people with access to an emerging educational system. There is documented evidence dating from the eighteenth century onwards about the use of the ring in schools to penalise the use of Basque (in other words, anyone caught speaking Basque would be punished and stigmatised by having to wear a special ring). This practice was still being employed in Navarre in 1969. The Moyano Law (in effect between 1857 and 1970) established the obligatory teaching of Spanish grammar in primary and secondary education throughout Spain. Yet by that time the Navarrese institutions had already been promoting obligatory teaching in Castilian in schools for decades.

Having said all this, one must put the influence of the educational system on the weakness of the Basque language in context. In 1860, 63 percent of Spanish Basques were illiterate while in 1930 this figure was still 27 percent; clear proof that the system was failing completely. The incapacity of the state itself explains the lack of schooling for a wide section of the Basque population. Two other factors were perhaps more important in the (relative) loss of Euskara: on the one hand, the effect of improving communications which allowed for greater geographical mobility (emigration to other regions, the Americas and the Philippines, and the immigration of masses of Spanish-speaking people); and on the other, obligatory military service, which used to last several years. In the Ancien Régime, the very estate or class system itself had favoured the survival of Euskara, even though it remained a lower status language in a purely diglossic situation. Once an egalitarian discourse associated with a bourgeois mentality emerged, the Castilian/Euskara separation no longer made sense in many places, which had a detrimental effect on the language.

In 1914 the Commonwealth of Catalonia was created. For the first time since the definitive creation of provinces in 1833, the Spanish state recognised the communal ties of Barcelona, Tarragona, Lleida and Girona. In 1917 the Provincial Councils or *Diputaciones* of Alava and, especially, Guipuzcoa and Biscay (Navarre withdrew almost immediately) initiated the groundwork for establishing a Commonwealth for Basqueland. There is documented evidence of the use of Euskara by the two peninsular coastal provinces' Provincial Councils during this era. An indirect consequence of this initial project in favour of such an association, which failed, was the creation, by the four Provincial Councils, of the Society of Basque Studies (*Eusko Ikaskuntza*, 1918) and the Academy of the Basque Language (*Euskaltzaindia*, 1919).

In 1923, General Primo de Rivera assumed power in Spain and proclaimed a dictatorship (1923–30) with royal approval. Primo de Rivera severely

(Nafarroakoa berehala baztertu baitzen), Euskal Herriko Mankomunitatea sortzeko bidea urratu zuten. Garai hartan, hegoaldeko itsasaldeko bi probintzietako diputazioetako administrazioan euskararen erabilera dokumentatzen da. Eusko Ikaskuntzaren (1918) eta Euskaltzaindiaren (1919) sorrera, lau diputazioen eskutik, autonomiarako lehen prozesu honen, huts egin zuenaren, zeharkako ondorioa izan zen.

1923an, Primo de Rivera jenerala agintez jabetu eta diktadura aldarrikatu zuen (1923-1930), erregeak sostengaturik. Primo de Riverak indar handiz erreprimitu zituen periferiako nazionalismoen agerraldi politikoak, baina duda-mudatan egon zen Espainiako hizkuntza ez-gaztelaei buruz, garai hartan gaztelania ez baitzen ez eta hurrik eman ere herritar espainol guztiek ulertua. Horrek esplikatzeko du zergatik segitu zen euskara betebeharrak gisa eskatzen edo merezimendu gisa baloratzen udal administrazioko lanpostu publiko batzuetarako (idazkari, mediku, maisu edo maistra eta abar izateko), Gipuzkoan, adibidez. Hori horrela, inguruabar politikoek beharturik, abertzale askok erabaki zuten autonomiaren aldeko borroka bigarren mailan jarri eta bete-betean euskara lantzea. Testuinguru horretantxe jarri behar da Euskaltzaleak (1927) elkarrearen sorrera, non, besteak beste, Xabier Lizardi poetak eta José Ariztimuño *Aitzol* apaiz abertzaleak, frankistek hilen zutenak, parte hartu baitzuten. Bigarren Errepublikan (1931-1936), euskarak urrezko aro bat ezagutu zuen, literaturari eta kazetaritzari dagokienez, eta ikerketa zientifikoaren gai gisa. Hala ere, euskarazko urteroko ekoizpen bibliografikoa ez zen inoiz hogeita hamar liburukoa baino handiagoa izan.

Luzaz irrikaturiko autonomia 1936ko urrian onartu zitzaion Euskadiri, Gerra Zibila (1936-1939) hasita. Ordurako Gipuzkoa gehiena frankisten eskuetan zegoen (Nafarroan eta ia Araba osoan oldartze militarren arrakasta erabatekoa izan zen hasieratik). Bilbok 1937ko ekaina arte aurka egin zien frankistei eta Enkartzatuen mendebaleko aldeak pare bat hilabete gehiago. Azken euskal gotorlekuarekin batera euskarak bere historia osoan gozaturiko ofizialtasuna ere erori zen, hamar hilabete eskas iraun zuena. 1939tik 1975era bitarte, erregimen frankistaren ezaugarrietako bat Espainiako hizkuntza ez-gaztelaeukiko destaina izan zen. Haatik, herra ofiziala gora-behera, 1955erako, Gerra Zibila baino lehen euskaraz argitaraturiko liburuen urteroko batez bestekoa berreskuratua zen.

1960ko hamarkadatik aurrera, euskara euskal nazioaren arima bihurtu zen, lehenagoko abertzaletasunean bigarren mailan baitzegoen, katolizismoaren edo ustezko euskal arrazaren aldean. Errepresio frankistaren ondorioz, euskarak balio sinboliko ikaragarria beretu zuen, euskal herritar gutxien ohiko komunikazio tresna izateagatik legokiokeenaren gainera.

Frankismo garaian, ikastolek edo euskarazko haur eskolek merezi dute aipatzea. Ikastolaren lehen aurrekaria Resurrección María Azkuek Bilbon 1896an sortu zuen *Euskal Ikastetsea* izan zen. Gerra Zibila baino lehen, hamar bat herrik zeukaten ikastola bat, haien erdiak Gipuzkoan. Gerra bukatu eta urte gutxira, oso baldintza zailetan, Elbira Zipitria (1906-1982) hasi zen euskara irakasten, Donostiako etxe batean. Diktadorea hil zenerako, 1975erako, Hego Euskal Herrian 144 ikastola zeuden (71 Gipuzkoan, 45 Bizkaian, 22 Nafarroan eta 6 Araban), guztira 33.546 ikasle zeuzkatenak. Ipar Euskal Herriari dagokionez, lehenbizikoz Deixonne legeak (1951) eman zuen baimena euskara eta Frantziako «eskualdeetako hizkuntza» guztiak eskolan erabil zitezela. 1975ean 16 ikastola zeuden (13 Lapurdin, 2 Baxenabarren eta 1 Zuberoan), guztira 305 ikasle zeuzkatela.

Ikastolekin zuzenean loturik, gau-eskolak (gaur egungo euskaltegien aurrekariak) daude, hots, helduek euskara ikasi eta hobetzeko eskolak.

repressed any political manifestation by the peripheral nationalisms, but was more ambivalent when it came to the treatment of non-Castilian languages in Spain because Castilian at the time was far from being a language understood by all Spanish subjects. This explains why Euskara continued to be a requisite or highly valued for some public positions (municipal secretary, doctor, schoolteacher, and so on) in local government, for example in Guipuzcoa. This being the situation, forced by political circumstances, many Basque nationalists chose to relegate their struggle for autonomy to a secondary level and fully concentrate instead on promoting Euskara. This led to the creation of the *Euskaltzaleak* association in 1927, which included among its members the poet Xabier Lizardi and the nationalist priest José Ariztimuño “Aitzol” (later assassinated by pro-Franco forces). During the second Spanish Republic (1931-36) Euskara had a real golden age, in the literary and journalistic fields as well as becoming an object of scientific study. However, book production in Basque was never more than thirty books annually.

The longed-for autonomy was not conceded to the Basque Country until October 1936, with the Spanish Civil War (1936-1939) already underway. By that time, most of Guipuzcoa had fallen to Franco's troops (in Navarre and almost all of Alava the uprising was successful from the start). Bilbao/Bilbo resisted until June 1937 and the western part of the Encartaciones/Enkartzatzen a couple of months after that. With the fall of the last remnant of Basque autonomy, so the only (ten) months of co-official status that Euskara had ever had in its history came to an end. Franco's new regime (1939-75) was marked by its disdain for the non-Castilian languages of Spain. In spite of official aversion, by 1955 the annual average of books published in Euskara before the Civil War had been regained.

From the 1960s on, Euskara became the living embodiment of the Basque nation, where before it had occupied a secondary place to Catholicism or a notion of the Basque “race” for nationalism. Because of Franco's repression, Euskara took on enormous symbolic value; much more than its real position as a typical means of communication for a minority of Basques.

One of the phenomena of Franco's era which deserves special attention is that of the *ikastolak* or infants' schools in the Basque language. The antecedent of these schools was the *Euskal Ikastetsea* founded by Resurrección María de Azkue in Bilbao/Bilbo in 1896. Prior to the Spanish Civil War, there were *ikastolak* in a few dozen localities, most of them in Guipuzcoa. A few years after the war, Elbira Zipitria (1906-1982) began teaching Basque in a private house in San Sebastián/Donostia in very precarious conditions. When the dictator died in 1975, there were 144 *ikastolak* (71 in Guipuzcoa, 45 in Biscay, 22 in Navarre and 6 in Alava) with 33,546 pupils in Spanish Basqueland. As regards French Basqueland, the Deixonne Law (1951) permitted the use of Euskara and other “regional languages” in schools for the first time. In 1975, there were 16 *ikastolak* (13 in Labourd, 2 in Lower Navarre and 1 in Soule), with a total of 305 pupils.

The *gau-eskolak* (nowadays called *euskaltegiak*)—centres for adult learning and perfecting Basque—are directly related to the *ikastolak*. The first Basque literacy campaign took place in 1966, led by the Academy of the Basque Language. This campaign established the *Alfabetatze Euskalduntze Koordinadora* (Coordinator of Education and Literacy in Euskara, AEK), which expanded throughout the country after 1976. By the following year it had twenty thousand students (currently there are

Euskaraz alfabetatzeko lehen kanpaina 1966an gertatu zen, Euskaltzaindiak sustaturik. Horixe izan zen AEK-Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundearen abiapuntua. AEK 1976tik aurrera Euskal Herri osora zabaldu zen eta hurrengo urterako 20.000 ikasle zeuzkan (gaur egun, 40.000 heldu inguruk ikasi edo hobetzen dute beren euskara ikastetxe publiko eta pribatuetan). Ikastolen eta gau-eskola edo euskaltegien berritasunik handiena hauxe da: ez direla mugatzen ama hizkuntza euskara duten ikasleei irakastera, baizik eta Euskal Herri osoan jardun nahi dutela, baita duela mende batzuetatik euskara mintzatzen ez deneko lurraldeetan eta ama hizkuntza gaztelania (edo, hala bada, frantsesa) duten ikasleekin ere. 1960ko hamarkadatik aurrera, ordura arte bitxi samarra izan zen figura bat ugaldtu zen: euskaldunberria edo euskara heldua denean ikasten duena, ez ikergai gisa, komunikazio tresna gisa baizik.

1981ean, gutxi gorabehera, 596.000 euskaldun zeuden Euskal Herrian (bizilagunen % 20,35) eta 102.000 Euskal Herritik kanpo. 120 urte lehenago, 1860an edo, 500.000 pertsonak zuten euskara hizkuntza nagusi gisa, hots, bizilagunen % 55 inguruk. Beraz, 1860tik 1981era bitarte, euskaldun kopuruak iraun egin du eta, areago, bosten batean gehitu da. Baina, erlatiboki, haren proportzioa bi herenetan gutxitu da eta euskara alde txikiak euskal herritar gehienek hizkuntza izatetik gutxienena izatera pasa da.

UNESCOn arabera, euskara egoera ahulean dago Euskadin eta, bereziki, Nafarroan, eta arrisku handian Ipar Euskal Herrian. Euskadiko Autonomia Erkidegoan, azken hamarkadetan, haren normalizaziorako aurrerapen ukaezinak egin dira. Hizkuntza ofiziala da, gaztelaniaren maila berean, teoriarik, behintzat, eta euskararen alde ia indar politiko guztien adostasuna bada, 1982ko Normalizazio Legean gauzatu zena. Nahiz eta hiru probintzien artean alde handiak egon, unibertsitatez kanpoko ikasleen % 66,5ek euskaraz estudiatzen dute, % 17,8k eredu elebiduna aukeratzen dute eta % 15,2k euskara ikasgai gisa hartzen dute. Mintzairak unibertsitateko, hedabideetarako (telebista barne, Euskal Telebista 1983az geroztik baitago antenan) eta teknologia berrietarako sarbidea dauka. Gora doan kultura baten tresna da eta azken urteetan, adibidez, autonomia erkidegoko lau euskarazko idazleri eman zaie Espainiako Literaturaren Sari Nazionala. Haren iraupena, zailtasunak zailtasun, bermaturik dago. Txanponaren aurkiarekin batera, ezin da ifrentzua ezkutatu. Jakite-maila gora doa, baina horrek ez du beti eraginik erabileran, oso mantso aurreratzen ari baita. Nafarroak, bere aldetik, bere Euskarari buruzko Legea dauka (1986), hiru hizkuntza eremu ezartzen dituena: euskalduna (non euskara ofiziala baita gaztelaniarekin batera), mistoa (estatus anbiguokoa) eta ez-euskalduna (non bakarrik gaztelania baita ofiziala). Euskadin ez bezala, Nafarroako gizartean ez dago adostasunik hizkuntzari buruz eta herritarrak zatiturik daude horri dagokionez. Gaur egun, ikasleen % 24,6k euskaraz estudiatzen dute, % 14,3k ikasgai gisa hartzen dute euskara eta % 0,2k eredu elebiduna aukeratzen dute. Euskaldun kopuruak pixka bat gora egin du, baina nafar askok ez dute begi onez ikusten euskara, uste baitute, epe luzera begira, Nafarroa Euskadin sartzeko tresna bat izan daitekeela. Are okerrago, Ipar Euskal Herrian, non hizkuntzak ez baitu inolako legezko babesik, euskaldunak gero eta gutxiago dira, kopuru absolutuetan, baina, gehienbat, erlatiboetan, Lapurdiko itsas hegian bereziki. Bakarrik ikasleen % 7,1ek estudiatzen dute euskaraz eta % 19,5ek eredu elebiduna hautatzen dute. Berehala joera aldatzen ez bada, euskara arriskuan izanen da Pirinioez iparraldean hizkuntza marjinal bihurtzeko, belaunaldi honetan berean.

around forty thousand adults learning or perfecting Euskara in both public and private centres throughout Basqueland). Yet the major innovation of both *ikastolak* and *gau-eskolak* or *euskaltegiak* was that they did not limit themselves to just teaching to pupils whose mother-tongue was Basque. Instead, they focused on the whole of Basqueland, including areas where Euskara had not been spoken for centuries and on pupils whose mother tongue was Castilian or French. From the 1960s, a figure who had until that time been very rare—the *euskaldunberri* or person who learned Basque as an adult, not just as an object of study but as a means of communication—became more common.

In 1981 there were approximately 596,000 Basque-speakers in Basqueland (20.35 percent of the population) and 102,000 elsewhere. Around 1860, some 120 years previously, Euskara was the first language of about 500,000 people or 55 percent of the population. We can deduce, then, that the number of Basque-speakers had remained about the same or increased by a fifth in the period 1860–1981; yet in relative terms this number had declined by two thirds, with Euskara changing from being a slight majority language to a minority one in its own territory.

According to UNESCO, Euskara is in a weak position in Euskadi and especially Navarre, and at great risk in French Basqueland. In the Autonomous Community of the Basque Country in recent decades, there have been undeniable advances towards its normalisation. It is a co-official language with the same theoretical status as Castilian and there is consensus about its promotion amongst almost all political forces in the shape of the 1982 Normalisation Law. With major differences amongst its three provinces, 66.5 percent of non-university students study in Basque, 17.8 percent opt for the bilingual model and 15.2 percent choose Basque as a subject. The language has guaranteed access to university, the media (including television, *Euskal Telebista*, broadcasting since 1983) and new technologies. It is the vehicle of a growing culture and in recent years no less than four Basque-language writers from the autonomous community have won Spain's National Literary Award. Its survival, even with difficulties, is then guaranteed. The flipside of this, however, is that the progress made in knowledge of Basque does not always result in its greater use, which is advancing only slowly. Navarre, meanwhile, has its own Basque Language Law (1986), which establishes three linguistic zones: the Basque-speaking zone (where Euskara is co-official with Castilian), the mixed zone (where it has an ambiguous status), and the non-Basque-speaking zone (where only Castilian is official). In contrast to Euskadi, there is no social agreement on the language and people remain highly divided on the issue in the Foral Community of Navarre. Currently, 24.6 percent of pupils study in Basque, 14.3 percent take Basque as a subject and 0.2 percent opt for the bilingual model. The number of speakers has risen slightly there, but many Navarrese look at Euskara with suspicion, regarding it as a long-term instrument to integrate Navarre into Euskadi. Worse still, French Basqueland, where the language lacks any legal protection, continues to lose speakers at present, in absolute terms, although especially relatively on the Labourd coast. Only 7.1 percent of pupils study in Basque, while 19.5 percent choose the bilingual model. If no immediate change in tendency is forthcoming, Basque runs the risk of becoming a residual language north of the Pyrenees during this same generation.

Eranskina: euskarazko liburugintza (1545-2018)

XVI. mendea: 6 liburu (0,06 urtean)

XVII. mendea: 46 liburu (0,4 urtean)

XVIII. mendea: 151 liburu (1,5 urtean)

1800-1849: 211 liburu (4,2 urtean)

1850-1875: 309 liburu (11,8 urtean) (Pizkunde euskaltzalea)

1876-1895: 403 liburu (20,1 urtean) (Pizkunde foruzalea)

1896-1935: 1.019 liburu (25,4 urtean) (Pizkunde abertzalea)

1936-1967: 818 liburu (25,5 urtean)

1968-1975: 915 liburu (114,3 urtean) (euskara batua)

1976-2018: 60.185 liburu (1.399,6 urtean)

(Iturria: egileek prestatuak, Torrealdai 1997 eta 1997-2019tik, eta Eizagirre 2020tik abiatuak)

Annex: Book production in Basque (1545-2018)

Sixteenth century: 6 books (0.06 per year)

Seventeenth century: 46 books (0.4 per year)

Eighteenth century: 151 books (1.5 per year)

1800-1849: 211 books (4.2 per year)

1850-1875: 309 books (11.8 per year) (cultural *Pizkunde*)

1876-1895: 403 books (20.1 per year) (foralist *Pizkunde*)

1896-1935: 1,019 books (25.4 per year) (nationalist *Pizkunde*)

1936-1967: 818 books (25.5 per year)

1968-1975: 915 books (114.3 per year) (*Euskara Batua*)

1976-2018: 60,185 books (1,399.6 per year)

(Source: Authors' elaboration based on Torrealdai 1997 and 1997-2019, and Eizagirre 2020)

Bibliografía

Bibliography

- Abaitua, J., Unzueta, M. (2011): "Ponderación bibliográfica en historiografía lingüística. El caso de la 'vasconización tardía'", *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura* 26, 5-26.
- Antonov, A. (2015): "Verbal allocutivity in a crosslinguistic perspective", *Linguistic Typology* 19/1, 55-85.
- Blevins, J. (2018): *Advances in Proto-Basque Reconstruction with Evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian Hypothesis*. London: Routledge.
- Bonaparte, L. L. (1863): *Cartes des Sept Provinces Basques montrant la délimitation actuelle de l'Euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. London: Stanford's Geographical Establishment.
- Caro Baroja, J. (1946): *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- Dávila Balsera, P., ed. (1995): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria (siglos XIX y XX)*. Bilbao: Universidad del País Vasco.
- Eizagirre, X. (2020): "Euskal liburugintza 2018", *Jakin* 241, 97-120.
- Erize, X. (1997): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Pamplona/Iruña: Nafarroako Gobernua.
(1999): *Vascohablantes y castellanohablantes en la historia del euskera de Navarra*. Pamplona/Iruña: Gobierno de Navarra.
- Euskaltzaindia (1977a): *Euskararen liburu zuria*. Bilbao.
(1977b): *El libro blanco del euskara*. Bilbao.
- Gómez, R. (1994): "Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra", in J.-B. Orpustan (ed.), *La langue basque parmi les autres*. Baigorri: Izpegi, 93-114.
- Gorrochategui, J. (1984): *Onomástica indígena de Aquitania*. Bilbao: Universidad del País Vasco.
(2012): "Euskaratiko osagaiak gaztelaniaren lexikoan", in I. Igartua (ed.), *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 103-150.
(2020): *Aquitainian-Vasconic. Language, writing, epigraphy*. Zaragoza: Prensas de la Universidad de Zaragoza.
- Gorrochategui, J., Igartua, I., Lakarra, J. A., ed. (2018): *Historia de la lengua vasca*. Vitoria/Gasteiz: Gobierno Vasco.
- Gorrotxategi, J., Igartua, I., Lakarra, J. A., ed. (2018): *Euskararen historia*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Heine, B., Kuteva, T. (2006): *The Changing Languages of Europe*. Oxford: Oxford University Press.
- Hualde, J. I., Lakarra, J. A., Trask, R. L., ed. (1995): *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Hualde, J. I., Ortiz de Urbina, J., ed. (2003): *A Grammar of Basque*. Berlin/Boston: De Gruyter Mouton.
- Igartua, I., ed. (2012): *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
(2015): "Diachronic effects of rhinoglottophilia, symmetries in sound change, and the curious case of Basque", *Studies in Language* 39/3, 635-663.
- Igartua, I., Oñederra, L. (2020): "Basque: the language and its speakers", in L. Grenoble, P. Lane, U. Røyneland (ed.), *Linguistic Minorities in Europe Online*. Berlin/Boston: De Gruyter Mouton, 1-19.
- Intxausti, J. (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
(1992): *Euskera, la lengua de los vascos*. Donostia/San Sebastián: Elkar.
- Jimeno Jurío, J. M. (1997): *Navarra. Historia del euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- Lacarra, J. M. (1957): *Vasconia medieval. Historia y filología*. Donostia/San Sebastián: Seminario Julio de Urquijo.
- Lakarra, J. A. (1995): "Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque", in J. I. Hualde, J. A. Lakarra, R. L. Trask (ed.), *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 189-206.

- (1996): "Sobre el Europeo Antiguo y la reconstrucción del protovasco", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* 30, 1-70.
- (2017): "Basque and the reconstruction of isolated languages", in L. Campbell (ed.), *Language Isolates*. Abingdon/New York: Routledge, 59-99.
- Lakarra, J. A., Manterola, J., Seguro, I. (2019): *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa* (EHHE-200). Bilbao: Euskaltzaindia.
 - Martínez Arteta, M., ed. (2013): *Basque and Proto-Basque: Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
 - Michelena, L. (1964): *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro.
- (1977): *Fonética histórica vasca*. Donostia/San Sebastián: Diputación Foral de Guipúzcoa.
- (1981): "Lengua común y dialectos vascos", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* 15, 291-313.
- (1985): *Lengua e historia*. Madrid: Paraninfo.
- (1988): *Sobre historia de la lengua vasca*. I-II. Donostia/San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa (Anejos del *Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* 10).
- (2011): *Obras completas*. I-XV. Donostia/San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa/Universidad del País Vasco/Gobierno Vasco.
- Monteano Sorbet, P. J. (2017): *El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*. Pamplona/Iruña: Pamiela.
 - Múgica, M. (2018): "La lengua vasca en la Península entre Antigüedad y Edad Media. Observaciones a la *communis opinio*", in J. A. Lakarra, B. Urgell (ed.), *Studia Philologia et Diachronica in honorem Joakín Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica* (=Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" 52/1-2), 553-576.
 - Rayfield, D. (1990): "Killing the chimera: The Basque-Caucasian hypothesis", *Multilingua* 9/2, 231-241.
 - Rebuschi, G. (2003): "Basque", in Thorsten Roelcke (ed.), *Variationstypologie / Variation Typology. Ein sprachtypologisches Handbuch der europäischen Sprachen in Geschichte und Gegenwart / A Typological Handbook of European Languages Past and Present*. Berlin/New York: Walter de Gruyter, 837-865.
 - Sarasola, I. (1975): *Euskal literatura numerotan*. Donostia/San Sebastián: Kriselu.
- (1982): *Historia social de la literatura vasca*. Madrid: Akal.
- Tejerina, B. (1992): *Nacionalismo y lengua. Los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*. Madrid: Siglo XXI, Centro de Investigaciones Sociológicas.
 - Torrealdei, J. M. (1997): *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Oñati: Jakin.
- (1997-2019): "Euskal liburugintza", *Jakin* 98, 103, 109, 115, 120, 128, 134, 140, 146-147, 152, 158, 164, 170, 176, 182, 188, 192, 198, 205, 213, 217, 226, 235.
- Tovar, A. (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madrid: Alianza Editorial.
 - Trask, R. L. (1997): *The History of Basque*. London: Routledge.
- (1998): "The typological position of Basque: Then and now", *Language Sciences* 20/3, 313-324.
- Trebiño, I. (2001): *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.
 - Urkizu, P., ed. (1997): *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma (1851-1897)*. Bilbao/Donostia/San Sebastián: Eusko Ikaskuntza/Euskaltzaindia.
 - Vennemann, Th. (2003): *Europa Vasconica - Europa Semitica*. Berlin/New York: Walter de Gruyter.
 - Villar, F., Prósper, B. M. (2005): *Vascos, celtas e indoeuropeos*. Genes y lenguas. Salamanca: Universidad de Salamanca.
 - Vogt, H. (1955): "Le basque et les langues caucasiques", *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 51, 121-147.
 - Yrizar, P. de (1973): "Los dialectos y variedades de la lengua vasca: estudio lingüístico-demográfico", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* 29, 3-78.
 - Zabaltza, X. (2005): *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos*. Donostia/San Sebastián: Hiria.
- (2018): "Pizkunde: los 'renacimientos' de la lengua vasca", *Scripta. Revista Internacional de Literatura i Cultura Medieval i Moderna* 11, 86-107.
- Zuazo, K. (1998): "Euskalkiak, gaur", *Fontes Linguae Vasconum* 78, 191-233.
- (2019): *Standard Basque and Its Dialects*. London: Routledge.
- Zúñiga, F., Fernández, B. (2019): "Grammatical relations in Basque", in A. Witzlack-Makarevich, B. Bickel (ed.), *Argument Selectors. A New Perspective on Grammatical Relations*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 185-211.



Iván Igartua Ugarte (Vitoria-Gasteiz, 1972)

Iván Igartua Ugarte hizkuntzalaria eta Eslaviar Filologiako irakasle titularra da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Hizkuntzalaritza historikoan eta hizkuntzen tipologiaren inguruan hainbat ikerketa egin ditu. Argitaratu dituen liburuen artean daude *Origen y evolución de la flexión nominal eslava* (2005) eta *Gramática histórica de la lengua rusa* (2007). Euskalaritzaren alorrean, *Euskararen historia* (2018) liburuaren koordinatzaileetako bat izan da, eta *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar* (2012) izeneko artikulu bildumaren editore ere izan zen. Larry Trask hizkuntzalari eta euskalariaren biografia labur bat (2012) idatzi zuen. Horiez gain, *Basque (Linguistic minorities in Europe online, 2020)* De Gruyter-en argitalpen digitalaren koedizioan parte hartu du.

Iván Igartua Ugarte is a linguist and senior lecturer in Slavic Philology at the University of the Basque Country (UPV/EHU). He has carried out research into historical linguistics and the typology of languages. His published books include *Origen y evolución de la flexión nominal eslava* (2005) and *Gramática histórica de la lengua rusa* (2007). Within the field of Basque linguistics, he was one of the coordinators of *Historia de la lengua vasca* (2018) and he also edited a collective work of articles titled *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar* (2012). He wrote a short biography of the linguist and Basque expert Larry Trask (2012). Moreover, he co-edited the online publication *Basque: Linguistic minorities in Europe online* (2020) by the De Gruyter publishing house.

Xabier Zabaltza Pérez-Nievas (Tudela/Tutera, 1966)

Xabier Zabaltza Pérez-Nievas UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Gaur Egungo Historiako irakasle agregatua da. Haren obra akademikoaren barruan *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos* (2005) eta *Una historia de las lenguas y los nacionalismos* (2006) liburuak aipatzekoak dira. *Gu, nafarrok* (2007) euskarazko saiakeran, gaztelaniaz *Nosotros, los navarros* (2009) izenburuarekin argitaratu zen horretan, Nafarroaren nortasunak, elkarri aurka egiten diotenak, modu kritikokoan aztertu zituen. Agosti Xaho zuberotar idazlearen euskarazko biografia baten egilea da (*Aitzindari bakartia*, 2011), gaztelaniaz eta frantsesez ere agertu zenarena. Nafarroako Gobernuko itzultzaile, Nafarroako Parlamentuko interprete eta Eusko Jaurlaritzako aholkularia izan da.

Xabier Zabaltza Pérez-Nievas is a senior lecturer in Modern History at the University of the Basque Country (UPV/EHU). His academic work includes the books *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos* (2005) and *Una historia de las lenguas y los nacionalismos* (2006). In his Basque-language essay *Gu, nafarrok* (2007), which was published in Spanish as *Nosotros, los navarros* (2009), he explores critically opposing identities in Navarre. He is, moreover, the author of a biography in Basque of the Souletin writer Augustin Chaho (*Aitzindari bakartia*, 2011), which was also published in Spanish and French. He has been a translator for the Government of Navarre, an interpreter in the Parliament of Navarre and an adviser for the Basque Government.

KREDITUAK / CREDITS

Euskal Kultura Bildumaren edizioa
Basque Culture Collection Edition
Etxepare Euskal Institutua

Testua / Text

Iván Igartua – Xabier Zabaltza CC BY-NC-ND

Ingeleseko itzulpena
Translation into English

Cameron Watson

Edizioa / Edition

Miriam Luki Albisua

Maketazioa / Layout

Infotres

Diseinua / Design

Mito.eus

Azala / Cover Photo

Arantzazuko Basilika / Basilica of Arantzazu

Julen Altube Zigaran

Argitalpen urtea / Publication Year

2021

Argazkiak / Photos

Etxepare Euskal Institutuak bere esker ona agertu nahi die irudien jatorria zehazten lagundu diguten norbanako eta erakundeek, bereziki Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboari.

The Etxepare Basque Institute wishes to thank all the people and institutions who have helped us with identifying the sources of the images, especially the Azkue Library and Archive, Euskaltzaindia.


1. Elkar argitaletxea / Elkar publishing house.
2. Gallica-BnF.
3. Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia – Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea Library – Provincial Council of Gipuzkoa.
4. Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia – Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea Library – Provincial Council of Gipuzkoa.
5. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa / The Azkue Library and Archive, Euskaltzaindia.
6. Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia – Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea Library – Provincial Council of Gipuzkoa.
7. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa / The Azkue Library and Archive, Euskaltzaindia.
8. Eduardo Orduña CC BY-SA.
9. Marraztua, grabatua eta inprimatua Stanfords Geographical Establishment Londres, 1863 / Map Drawn, Engraved and Printed at Stanfords Geographical Establishment. London, 1863.
10. Iruñeko Katedraleko Artxiboa, I Cantoris 31 / Pamplona Cathedral Archive, I Cantoris 31.
11. (1-2). Árni Magnússon Islandiar Ikasketen Institutua / Árni Magnússon Institute of Icelandic Studies.
12. Xabier Zabaltza – Iván Igartua.
13. Nafarroako Museoa. Romano AF-616 / Museum of Navarre. Romano AF-616.
14. Ramón Menéndez Pidal Fundazioko Artxiboak / Archives of the Ramón Menéndez Pidal Foundation.
15. Errenteriako Udal Artxiboa – Municipal Archive of Errenteria.
16. (1-2). Donemiliaga Kukulako Fundazioa / San Millán de la Cogolla Foundation.
17. Donemiliaga Kukulako Fundazioa / San Millán de la Cogolla Foundation.
18. Egur gaineko olio-pintura, Jean Cluet artistarena izan daitekeena. Condé Museoa, Chantilly / Panel painting attributed to Jean Clouet. Condé Museum, Chantilly. Hemen argitaratua da / Published in: Olaizola, Juan Mari (1993): *El reino de Navarra en la encrucijada de su historia. El Protestantismo en el País Vasco*. Iruñea: Pamiela (2ª ed. 2011).
19. Liburutegi Digital Hispanikoa. Bne / Hispanic Digital Library. Bne. CC BY-NC-SA.
20. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa / The Azkue Library and Archive, Euskaltzaindia.
21. Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia – Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea Library – Provincial Council of Gipuzkoa.
22. Abadiako Zientzia Akademiaren Artxiboa / D'Abbadia Archives, Academy of Sciences.
23. Baionako Euskal Museoren bilduma / Basque Museum of Bayonne Collection.
24. Gallica-BnF.
25. Arana, Sabino (1919): *Olerkijak*. Ed.: Koldo Eleizalde. Bilbo: Editorial Vasca
26. Bilketa, Euskal Funtsen Ataria / Bilketa, Basque Sources website.
27. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa / The Azkue Library and Archive, Euskaltzaindia
28. Jesús Elosegui. Guregipuzkoa.eus. CC-BY-SA.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua nazioartean euskara, euskal kultura eta sorkuntza sustatzea eta ezagutzera ematea da, eta, horien eskutik, beste herrialdeekin eta kulturekin harreman iraunkorrak eraikitzea. Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditugu, eta sortzaile, artista nahiz kultura-sektoreetako profesionalen mugikortasuna errazten dugu, baita euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragile kulturalekin eta akademikoekin elkarlana bultzatzen dugu. Zeregin horietan guztietan Euskadiko kanpo ordezkariak gertuko bidelagun ditugu.

Etxepare Basque Institute

The Etxepare Basque Institute is a public agency dedicated to promoting Basque language, culture and creative talent internationally, and to building lasting relationships with other countries and cultures in these areas. To this end, we foster quality artistic activities and support the mobility of artists and cultural industry professionals, as well as teaching Basque language and culture. We also encourage collaboration with international stakeholders in both the cultural and academic fields, working closely with the official Basque delegations abroad.





BASQUECULTURE.EUS
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

BASQUE.

Europarrok kultura-ondare oparoa partekatzen dugu, mendeetan zehar izan ditugun trukeen eta migrazio-fluxuen ondorioa dena. Hala, bertako hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, berezi egiten gaituen horri esker guztiok jorituria, Europak duen balio handienetakoa bat da. **BASQUE.** lurralde baten isla da (euskararen lurraldearena), historia baten isla, mundua ulertzeko modu batena, gurea. Bere sustraiez harro dagoen kultura baten adierazpidea da, ikuspegi berri bat eskaintzeko tradizioa eta abangoardia uztartzen jakin duen kultura batena. **BASQUE.** euskal kultura eta sorkuntza garaikideari begiratzeko leihoa da. Musikaren, dantzaren, antzerkiaren, zinemaren, literaturaren, artearen eta beste adierazpide batzuen bidez euskal kultura eta euskara ezagutzera emateko leihoa. Eta, era berean, sormenari zabalik dagoen leku bat da, partekatzeko, zubiak eraikitzeko eta solaserako, kulturen artean elkar aditzen lagunduko diguten elkarrizketa berriei bide emateko.

Europeans share a rich cultural heritage from centuries of trade and migration. Linguistic and cultural diversity is one of Europe's main assets, each of us contributing with our uniqueness. **BASQUE.** is a window into a land (the land of the Basque language, Euskara), a history, a way of seeing the world. It is the expression of a culture proud of its heritage, a people that have learned to embrace difference to create a new vision for tomorrow. **BASQUE.** opens a new door to Basque culture and contemporary creation through music, dance, theatre, cinema, literature, art... and the Basque language. It is a place open to creativity, to sharing ideas, building bridges, sparking new conversation, and fostering dialogue between cultures.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA